



ARGIA



**Hizkuntza gutxituen
aldeko legea
Frantziako Estatuan**

Paul Molac-ekin elkarriketa:

“Orain, tokiko hizkuntzan
ikasi nahi duen orok ukan
beharko du aukera”

28-33. orriak



**“Paisaia eta
gizakiak ezin dira
banatu”**

12 | MANUEL MARÍA RUIZ



**Artistaren
Estatutua Hego
Euskal Herrian**

22 | KULTURA



**Gazteak
pandemian, nekea
eta zalantzak**

36 | GIZARTEA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #262 HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



NEGURITIK PARADISU FISKALETARA

BBVA-REN HISTORIA BELTZA

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ILUSTRAZIOA:
PAULA ESTÉVEZ

Iritziak

- 17 | ENDIKA ALABORT
- 18 | JUNE FERNÁNDEZ
- 19 | IÑAKI BARCENA
- 19 | ITXARO BORDA
- 20 | NEKANE TXAPARTEGI
- 21 | PABLO SASTRE

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 44 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA: NAIARA BARRADO
- 58 | BERANDUEGI



DANI BLANCO

36 | GAZTEAK PANDEMIAN

Lau gazte elkartu ditu Oihane Arretxeak azken urteaz mintzatzeko. Dituzten emozioak, ase gabeko beharrak eta gizartetik jasotzen dituzten mezu kriminalizatzaileak azaldu dituzte. Idoia Agirre psikiatrak eta Aitor Arizeta psikologia irakasleak azaldu dute gaztaroaren ezaugarriak zeintzuk diren eta pandemiak nola eragin dien.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL | CHEVRON

Multinazionalei auzi bat irabaztea kario pagatzen da
Pello Zubiria

12 | PERTSONAIA | MANUEL MARIA RUÍZ

“Gure udaletan obra goseak ez du azkenik”
Miel A. Elustondo

22 | KULTURA | ARTISTEN ESTATUTUA

Arauak nola moldatu artisten eta kultur langileen lanera, duina izan dadin
Peru Iparragirre

28 | EUSKARA | PAUL MOLAC

“Demokraziaren eta lurraldeen garaipena da lege hau”
Jenofa Berhokoirigoin

32 | EUSKARA | FRANTZIAKO ESTATUA

Hizkuntza gutxituen aldeko legea
Gorka Peñagarikano

34 | COVID-19 | BORIS REVOLLO IKERLARIA

“Ez dugu kutsatutako pertsona bilatzen, baizik eta nor den kutsatzeko gai”
Ana Galarraga / Elhuyar aldizkaria

46 | KULTURA | MARÍA SALGADO

Kresala, zaldizkoak eta hiru dimentsiodun poemak
Jone Alaitz Uriarte

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Ixone Arana, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Garcia, Oihane Arretxea, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia, Eneko Arzuaga

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

Salmenta

Karlos Olosolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefona

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaila taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

aniza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

“Gaurko borroka, biharko etorkizuna”

Larunbatean, Sestaon ehunka lagun kalera atera dira, enegarrenez salatzeko, garai batean puntako industriaren sinonimo zen eskualdea zer bihurtu duten: langabezia-tasa altuenak eta prekarietatea banatzen duten multinazionalen habia. Kaleratze masiboaz, borroka eta konstantziaz zerbait badakite Amurrión eta Laudion. Tubacexeko lagunek laster beteko dituzte 70 egun greban. 124 lanpostu eta 124 familiaren sostengua desagerrarazi nahi dituztelako ugazabek. Arantxa Tapiak dio ez dituela kaleratzeak justifikatzen, Josu Erkorekaren Ertzaintzak astero langileen bizkarrak makilakadez josi bitartean. Eskerrak, goikoen politika tristen aurrean, langileek ez duten irribarrea galdu.

📷 IÑAKI MONTES ✂️ AXIER LOPEZ







EUSKARAZ IKASI, LAN,
MAITATU, JOLASTU, GOZATU
ETA BIZI NAHI DUGULAKO;
GURE GUSTUKO FILM ETA
TELESAILAK EUSKARAZ
IKASI NAHI DITUGULAKO,
#NETFLIXEUSKARAZ!

@UrtziNaiz



APIRILAREN 15ERAKO
10.000 SINADURA LORTZEA
ERRONKA JARRI ZUTEN
ETA 10.500 DITUZTE JADA.
ABENDUAREN 3RAKO 20.000
LORTZEA ESPERO DUTE.
EUSKALGINTZAKO ERAGILEEN
BABESA JASO DU NETFLIX
EUSKARAZ TALDEAK

ARGIA.EUS



ASKO ALDATU DIRA
IKUS-ENTZUNEZKOEN
KONTSUMO OHITURAK.
ORDAINPEKO PLATAFORMEN
HARPIDETZAK %40 HAZI
DIRA BOST URTETAN, ETA
EUSKALDUNON HAMARRETIK
SEIK EDATEN DUGU ITURRI
HORRETIK. PLATAFORMA
HORIE TAN, EZ DAGO IA
EUSKARAZKO EDUKIEN
ESKANTZARIK

Izaskun Rekalde,
Netflix Euskaraz



DISNEY EUSKARAZ TALDEAK IA
6.000 SINADURA BILDU DITU
DISNEY PLUS PLATAFORMAN
EDUKIAK EUSKARAZ
ESKATZEKO. AGERRALDIA
ERE EGIN DUTE EUSKO
LEGE BILTZARREAN. 3.000 TWITZ
EGITASMOAK 4.000 SINADURA
INGURU BILDU DITU ASMO
BERAREKIN

BERRIA



PODEMOS AHAL DUGU

Amiantoaren biktimentzako funtsa

IXONE ARANA

Espainiako Kongresuak aintzat hartu du Eusko Legebiltzarrak 2017. urtean adostutako akordioa. Akordioak funts bat sortzearen beharra adierazten du, 1950etik gaur egunera amiantoarekin harremana edukitzeagatik gaixotu eta hildakoentzako. Espainiako Kongresuak onarturiko lege egitasmoak Madrilgo ganberako ia alderdi politiko guztien baietza jaso du; Vox abstenitu egin da. Maitane Ipiñazar (EAJ), Eva Blanco (EH Bildu) eta Gloria Sanchez (PSE) euskal legebiltzarkideek azaldu dute lege egitasmoaren edukia.

Amiantoak minbizia eragindako langileentzat eta langileak izan ez direnentzat ordain funts bat sortzea du helburu Espainiako Kongresuak. Alderdi politiko batzuen ustetan lege egitasmoak hainbat zuzenketa behar ditu. PPK adibidez, funtsa lortzeko moduan ikusten du arazoa.

Eusko Legebiltzarraren idatziaren arabera, Estatuaren diru ekarpenaz gain, enpresek ere jarri beharko dute dirua funtsa elikatzeke. Iñigo Barandiaran EAJko diputatuak adierazi du momentu honetan lege proiektua onartu izana dela garrantzitsuena. Amiantoak sortutako biktimen auzia "justizia sozialaren kontua" dela esan du eta Espainiako Kongresura agerraldia jarraitzera gerturatu diren Asviemieko kideei (Euskadiko Amiantoaren Biktimen Elkarteak) eskerrak eman dizkie. Belgikak, Herbehereek eta Frantziak pareko konpentsazio funts ereduak garatu dituztela gogorarazi du Barandiaranek.

HAINBAT SAIKERA

Asviamek ez du 2017an gertatutakoa errepikatzerik nahi: Kongresuak antzeko proposamen bat tramitatzea onartu zuen, aurretik Eusko Legebiltzarrean onartua izan zena, baina 2019ko hauteskundeetara deitu ondoren bertan behera geratu zen.

88.000 pertsona hil dira amiantoak eragindako minbizien ondorioz Europan. 2019an, 30 langile hil ziren Hego Euskal Herrian, baina biktimen elkarteak ohartarazi duenez horiek kasuen %10 baino ez dira.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Bidasoan behera



ARITZ GALARRAGA

Noiz edo noiz gertatu izan zait, liburu bat irakurri eta, kontxo, liburu hau nik idatzi nahiko nukeen pentsatzea; dela gaiagatik, dela testuaren mailagatik –ez gutxitan biengatik–. Liburu baten aurrean inbidia sentitzea, alegia; noski sanoa –inbidia sanoa, oximoron handiagorik ez dut ezagutzen–. Horixe bera gertatu zait Eneko Aizpuruaren *Bidasoan gora* liburua irakurtzean, kontxo, halako gertutasun bat sentitu dudala, hainbestearainokoa, non Aizpuruaren larruan, eta bereziki luman, egotea desiratu dudan.


Estrabon, Ptolomeo, Plinio mintzatu ziren Bidasoaz, pentsalari eta idazle atzerritarak, euskal poeta eta bardoak. Aizpuru mintzo da orain, eta nola. Txingudiko paduretan hasi, Xorroxingo iturrian buka, ibai ertzetik, Claudio Magrisek Danubiorekin egin moduan. Galderak pausatuz etengabe –“Zer dago mapa ofizial koloretsuen atzealde ilunean?”–, kontu ezin interesgarriagoak hunkituz –paisaia, deserria–, erreferentzia zukutsuak erabiliz –Sebald, Antónana–. Ez bertan goxo –“Egun errromesaldi politiko-turistiko jendetsuen helmuga dira bazter hauek”–, bai osotoro literario –“Ibaia mintzo da haren eztarri urratutik”–. Kalitate handiko orrialdeak, ez aski ohikoak gurean, estilo zaindu, iradokitzaile batean. “Begen bistan eduki arren ikusgarri ez dena erakustea da literaturaren zereginetako bat”, izan ere. Nahiz azkenerako, iturburura iristean, zer aurkituko eta “hutsune handi bat besterik ez”.

Laburtuz, inbidia sentitu dudala, ez batere sanoa, eta ibaierikiko esperientzia propioa kontatzeko gogo. Azken batean, idazten ditugun gauza guztiak ez ote dira sartzen elkarriketan aurretik idatzi diren gauza guztiekin? Edo, ez dadin plagio susmorik heda, egin nezake *Bidasoan behera*. Zalantzarik balego, Aizpuruak berak luzatzen digu gonbidapena: “Etorriko dira kimu berriak Xorroxingo putzu sakon honetan erantzun edo ziurtasunen bat baden edo ez galdezka”. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



“ESKERRAK EMATEN DIZKIOGU ERTZAINTZARI, HURBILEKO LAGUNTZAGATIK”

DANIEL ESTEVE, DESOKUPA

Abadiñoko Zelaieta auzoan okupatuta zegoen etxebizitza bat indarrez hustu du ultraskeindarrez osatutako Desokupa enpresa polemikoak. Etxe okupatuaren barruan grabatutako bideo baten bitartez, enpresako buru Daniel Esteve eskerrak eman dizkio Ertzaintzari “hurbileko laguntza eman digulako” eta gaineratu du, eraikina okupatuta zutenei zuzenduta, “gutako zortzi nahikoa izan dira zuek botatzeko, eta gainera, gu joan garenean Poliziak gozo jarri zaituzte!”. 2021/04/15

Europar funtsak: Bruselari planto?



JUAN MARI ARREGI

Iritzi publikoaren zati handi batek uste du Next Generation EU Europako Funtsak ez direla itzuli behar izango eta ez dutela inolako ordainik pandemiaren krisitik ateratzeko. Ba ez.

Lehenik eta behin, Espainiako Estatuak jasoko dituen 140.000 milioi eurotik 100.000 itzuli egin beharko ditu, kredituei transferentzia-programan dagokion zatia gehitzen badiegu –Frantziako Estatuak 40.000 milioi jasoko ditu, baina kasu honetan laguntza zuzenak izango dira–. Bigarrenik, soilik Europar Batasunak ezarritako murrizketa-politikak betez gero emango dituzte funts horiek, batez ere lanaren, gizartearen eta zergen arloan. Hor daude lan, zerga eta pentsio erreformak.

“Espainiak planto egin dio Bruselari zerga, lan eta pentsio erreformetan”, esan digute berriki espainiar hedabideetan. Hori ikusi beharko da. Noraino eutsiko dio EBren politika neoliberal eta kapitalistaren presioari? Zalantzarik oso.

Horregatik, ezkerreko alderdiek –abertzaleek barne–, erantzukizun handia dute, eta hobe lukete Euskal Herriak kapitalari Planto! taldeko kideek diotena entzun eta aplikatzea: “Europako funtsekin zerikusia duten planen logika neoliberalak erabat zalantzan jarri behar da. Logika horri aurre egingo diogu. (...) Funtsen xedeari buruzko eztabaidan sartzea, funtsen muina alde batera utzita, trampa bat da, eta ez gara horretan eroriko”.

Argi dago funtsen zati txiki bat baino ez dela izango osasun, ekonomia eta gizarte krisiaren ondorioei aurre egiteko. Argi hitz egin dezagun, ELA sindikatuek dioten bezala, “egiazki transnaziionalen proiektu handiak finantzatzeko planteatuta daude, Petronor-Repsol eta Iberdrola, esaterako”. Hori da kapitalismo berde berria. ●



Bi ikastaroetan irudi hau erabili zuten gidatzaileek, lan ikusgarri eta ezkutukoak iruditatzeko.

Ziklo ekonomikoez edo...

ELITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Ekonomia feministari buruzko tailerra egin berri du Olatukoopek Oreretan. Lurraren patxada ekarri dit naturarekin bat garela kontzientzia hartzeak, jaten dugunak eta gure ekintza bakoitzak naturan zein planetako beste herrietan duen eraginaz hausnartzeak, eguneroko bizitza zein gorputz eta harreman saretan eusten dugun kolektiboki pentsatzeak... Hori guztia lotuta dagoela ulertzeak ekarri dit uraren transmisio gaitasuna. Sistema kapitalista-arrazista-heteropatriarkal honek eragiten duen indarkeria basatizko kasu bakoitzaren aurrean erresistentzia badela ikustekak piztu dit suaren kemena. Eta haizeak bezala biziberritu nau hau gogoratzeak: beti badirela antzinagoko beste egiteko modu batzuk, bizitzarekin errespetuzkoak direnak. Sorburu Kooperatibako Cony Carranzak gidatu du ikastaroa eta mesoamerikarren ahotsak ekarri ditu: ekonomia feministatik lurraren, herriaren eta gorputzen alde eguneroko borrokan ari dira, multinazionalak eta mendealdeko bizi-moda eroak dakartzkien proiektu hiltzaileen kontra. Osatzeaz mintzo dira, borrokan jarraitzeko zauriak sendatzea ezinbesteko baitzaie. Eta arbasoekin konektatu beharraz. Euskal Herriko emakume baserriar agroekologikoak entzuteko nahia sentitu dut.

Oraindik ikastaro horretako bizipenak sabelean ditudala, Larraulen *Ziklikoak gara* tailerra gidatu du Enara Iruretagoienak. Obulatzeak dakartzan faseak gutako bakoitzak fisikoki, psikikoki eta emozionalki nola bizi ditugun elkarrizketan aritu gara, eta norberak bizitzan zehar garatu izan dituen estrategiak partekatu ditugu, linealak izatea exigitzen digun ekonomia honetan bizirauteko, eta are, fase bakoitzean munduan egoteko dugun modua baliatzeko. Adibidez, zaurgarri sentitzen garenean eta gure burua zalantzan jartzen dugunean daukagun ikuspegia eta sentikortasun zorrotza aldaketak eragiteko giltza direla ondorioztatu dugu, segurtasun hegemonikoak astintzeko akuilu ederra baitira. Eguneroko koaderno aurrean bost minutuz pentsatzera gonbidatu gaitu: Nola nago gaur? galderari erantzutera, eta zikloaren zein egunetan gauden, ilargia nola dagoen eta abar idaztera. Denborarekin gure gorputzaren kontzientzia hartu dezagun. Egun erabat desjabetua sentitzen dugun osasun burujabetza berreskuratzeko lehen tantak izan daitezke.

Izan ere, gure gorputzetan gertatzen da dena. Pandemia urte honetan ugaritu egin dira hilekoa jaisterakoan minak, hilekoa eten zaien kasuak... Masajeak bezala hartu ditu nire barrenak bi tailer hauek. Korapilatuta gauden garai honetan bide emankorra begitandu zait ekonomia feminista, pandemiarik sortuko ez duten bizimodu esanguratsuak kolektiboki lantzeko eta sistema zapaltzaile hau errotik iraultzeko. Gure gorputzetatik hasita. Oso ongari indartsua den hilekoa lurrari emanaz, adibidez. ●

Fukushimako ur kutsatua itsasora botatzea onartu du Gobernuak

ARGIA

Apirilaren 13an Japoniako Gobernuak erabaki du Itsaso Barera isuriko duela 2011n Fukushima istripua izan zuen zentral nuklearrean pilatutako ur erradiaktiboa. Bi urte iraungo du operazio honek. Egun kutsatuak diren eta itsasora isuriko diren 1,25 milioi tona ur hauek nuklearraren errektoreak hozteko erabilitakoa da, baita lurpeko putzuetakoa eta euria ere.

AURREIKUSITAKO ERABAKIA

Yoshihide Suga Japoniako lehen ministroak adierazi du "saihestezina" eta "errealistena" dela neurri hau zentral nuklearra deseraiki ahal izateko. Iragan urte hasieratik ur kutsatua itsasora botatzearen alde egin du Gobernuak baina erabakia hartzea zaildu dute Fukushima Gobernuak eta bertako arrantzaleen elkarteek egindako aldarriek, haien ekonomia are gehiago kaltetuko dutela espero baitute.

OHIKO PRAKTIKA OMEN

Japoniako agintariek adierazi dute ur erradiaktiboa isurtzeak ez duela arriskurik ekarriko pertsonen osasunean, isuriko den tritio maila osasun mugen barruan dagoelako eta gaineratu dute praktika hori ohikoa dela beste herrialdeetako industria nuklearretan.



AITOR GARMENDIA


TXERRI INDUSTRIAREN ERRAIETAN

ESPAINIA. World Press Photo erakundeak urtero antolatzen duen sariketako hautagaien artean, Aitor Garmendia argazkilaria donostiarrak Ingurumen ataleko hirugarren saria lortu du. Espainiako Estatuko zenbait txerri haztegitan egindako argazki sortagatik lortu du saria: "Inside the Spanish Pork Industry: The Pig Factory of Europe". Saritutako erreportajea lehen aldiz 2020ko maiatzean argitaratu zuen ARGIAk, 2684 zenbakidun astekarian.

ETXEBIZITZA

14.000

etxe huts eta 51.000 bigarren etxe aurreikusten dituzte bost urte barru Ipar Euskal Herrian. Euskal Hirigune Elkargoak onarturiko Bizilekuen Tokiko Programak kalkulatu ditu kopuru horiek. Bestelako etxebizitza politika baten alde agertu da hainbat hautetsi, gehiegi eraikitzen dela iritzita.



ESKUMENAK. Espetxe eskumenak Eusko Jaurlaritzara eskualdatzeko akordioa lortu dute Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak. Horrez gain, beste hiru eskumenen eskualdatzea ere egingo da: Errepide garaioa, ISSNa eta Ondarroako Itsas Barrutiko eraikinaren eskumena.



HILKETA MATXISTA. Gizon batek emakume bat hil du tiroz Miarrizten, eta bere buruaz beste egin du ondoren. Agilera auzoko etxebizitza batean aurkitu dituzte bi gorpuak. Hurrengo egunetan, hilketa matxista salatzeako mobilizazioak egin dituzte, mugimendu feministak deituta.



KUTSADURA. Frantziako Batzar Nazionalak bi ordu eta erdian edo gutxiagoan trenez egin daitezkeen hegaldi guztiak debekatzearen alde bozkatu du. Hiru bozketetik lehena izan da eta Senatura eramango dute proposamena. Klima Aldaketaren Legearen parte da neurria.

CHEVRONEK HONDORATU DONZIGER ABOKATUA: MULTINAZIONALEI AUZI BAT IRABAZTEA KARIO PAGATZEN DA

U.A.-k idatzi digu ARGIAra: “Duela bi urte eta erdi, Net Hurbil-en aztertu zenuten nola epaile pribatuak bertan behera utzi zuten Ekuadorreko auzitegiek Chevroni ezarritako zigorra. Bada, garaipen hura, zigorrarena, ahalbideratu zutenen aurkako jazarpenak ez dauka etenik eta urteetan engaiatuta egon den Estatu Batuetako abokatu batek 600 egun darama New Yorkeko etxean atxilotuta, Chevronek antolatutako erasoaren ondorioz”.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Eta U.A. bidalitako hariei tiraka osatu dugu Steven Donzigerren istorioa. Maiteko ez ditugu, bada, gure irakurleak!

Donzigerrek lagundu zien Ekuadorreko 30.000 herritar indigena eta base-ritarri Chevron multinazionalari auzia irabazten: 8.100 milioi euro ordaintzera kondenatu zuten haien lurra petrolioz eta beste kimikoz kutsatu izanagatik. Orain epaile batek abokatuak etxean preso dauka, lan profesionala debekatu. Ingelesezt SLAPP *Strategic lawsuit against public participation* deitzen duten auzia sartu diote Donzigerri, parte hartze publikoaren kontrako auzibide estrategiko bat.

SLAPP Wikipediak honela definitzen du: “Auzi honen helburua da kritikoak beldurtu eta isilaraztea tribunaletako defentsaren kostu garestiarekin, beren kritika edo oposizioan amore eman dezaten. Horrelako auzi batean akusatzaileren helburua ez du zertan izanik irabaztea. Akusatzailiak bere helburua lortu du akusatuak amore ematen baldin badu beldurragatik, mehatxuengatik, defentsaren kostuengatik edo, besterik gabe, neke hutsez. Auziak balio dezakete gatazkan parte hartzeko asmoa duten beste guztiak ikartzeko ere”. Gure etxera itzulita, horra nola daukan definizio juridikoa Ainhoa Intxaurrendietari eta Iñaki Errazkini Gipuzkoako erraustegia- ren sustatzailerek sartu zieten epaiketak ere: SLAPP.

Steven Donziger (1961) abokatu gazte zela murgildu zen gero bizi osoa harrrapatuko zioten ingurumen auzietan. 1993an sartu zen Ekuadorreko Lago Agrio eskualdean –Kolonbiarekiko mugatik hurbil– kutsaketa larriak ikertzen ari zen abokatu talde batean.

1960ko hamarkadatik Amazoniako eskualde hartan hainbat petrolio iturri zulatuak zituen Texaco multinazionalak, bazter guztietan utziz igerileku olinpikoak adinako olio hondakinezko putzuak. Kutsagaiak inolako kontrol barik isurtzen ziren erreka eta ibaietan, lekuko jendeek edateko ura hartzen dutenetan. Hala ziren ugarituak eskualde osoan urdaileko, gibelesko eta eztarriko minbiziak, berdin haurren artean leuze-miak. Donzigerrek *Intercept*-eko kazetariari bere etxe-presondegi bilakatutik esan dion moduan, “han jendeak alimalako krisi humanitarioa bizi zuen”.

Espainolez ondo moldatzen den Donziger buru-belarri sartu zen aferan, zientoka aldiz bidaiatu zuen Ekuadorrera eta gizon erabakigarria izan zen lekuko jendeen aldarrikapenak bideratzeko. Borrokaren hurrengo urratsean, 2011n Sucumbios probintziako 30.000 biztanlek eraman zuten auzitara Texaco Petroleum, ordurako AEBetako bigarren petroliogile nagusia zen Chevron multinazionalak eresia. Multinazionalaren aholkulari juridikoek nahiago zuten auzia AEBetatik Ekuadorrera desbideratzea, kalkulatu hemengo epaileek

manipulatzen errazagoak izango zirela. Prozeduren epeetan etengabeko berandutzeak ere eragin zituzten, baina azkenean askoren harridurarako Ekuadorreko auzitegiek 2012ko sententzian herritarrei eman zieten arrazoi eta Texaco-Chevroni 8.100 milioi euroko kalte-ordainak ezarri.

BETI BADA JUJE EGOKI BAT

Multinazionalaren kontraerasoaren atal bat duela bi urte eta erdiko Net Hurbilen erakutsi zen: Chevronek lortu zuen –epaiaren ostean– gaia bideratzea gatazka komertzialetan arbitro lanak egiten dituen auzitegi pribatu batera, Hagako Arbitratze Auzitegira. “Auzitegi” deitu arren aholkulari pribatuz osatutako arbitratze mekanismo hau sortuta zegoen AEBek eta Ekuadorrek 1993an elkarren artean egindako inbertsioak sustatu eta babesteko itunaren baitan. Eta honek arrazoi eman zion Chevron multinazionalari, argudiatuz Ekuadorreko epaileek urratu egin zituztela inbertsio itun hark ezarritako betebeharrak.

Behin merkataritza globalaren *business as usual*-era bideratzeko lehen kolpea emanik, Chevronek ekin zion bigarrenari, 8.100 milioi euroko kalte-ordainen ustezko erruduna eliminatzeari. Hala hasi ziren Steven Donzigerren maulurak –pertsonalak eta profesionalak–.

Chevronek AEBetan auzitara eraman zuen Ekuadorreko epaiketan oker jokatu izanagatik, tartean, epaileak eros-

**STEVEN DONZIGER**

HITZA HARTUTA, 2013AN
CHEVRONEN AURKAKO
EKINTZAILEEK QUITON EGINDAKO
AGERRALDI BATEAN. ARGAZKIA:
RODRIGO BUENDIA.

teagatik. Lewis Kaplan epaileak onartu zituen iruzur salaketak, Donzigerri gaineratu zion multinazionalak Ekuadorren galdutako epaiketaren defentsan xahututako gastuen erantzukizuna, telefono eta ordenagailuak bahitu zizkion eta abokatuak horien erreklamazioa egin zuenean etxean preso egoteko zigorra ezarri zion.

Hedabideetako argazkietan Steven Donziger ikus daiteke orkatilan kontrol telematikoa daramala: ez dauka New Yorkeko bere apartamendutik kalera ezertara jaisteko eskubiderik. Bi urte daramatza horrela eta ez da esajeratua esatea dena galdu duela, berak ere airtortzen du. Donzigerren alde mobilizatu dira Amnesty International, Global Witness, Amazon Watch, Rainforest Action Network... -eta hamabost Nobel sari-

dun eta zientoka juristek ere salatu dute Chevronen jokabidea-.

Mundu osoan 1.400 abokatu lanean dauzkan Gibson, Dunn & Crutcher aholkularitzak hartu zuen Donziger pertsegitzeko lana, eraiki zuen Ekuadorreko auziaren manipulazioaren argudioa eta lekuko izar bat ere "aurkitu" zuen -Alberto Guerra epaile ekuadortarra, prest egon zena AEBetan deklaratzeko Donzigerrek bere lanean xantaia egiten zuela-. Guerrak beranduago atzera egingo zuen esan haietan, prozeduran barrena garbi agertu zen hura gezurretan aritua zela, baina ordurako Kaplan epaileak auzitegietan abian jarria zuen Guerra gabe ere Donziger harrapatzeko zepoa.

Eskandaluaren xehetasunetan interesa duen irakurleak, aurkituko ditu Amazon Watch elkarteak bezala *The*

Guardian eta *The Intercept* hedabideek gaiaz egindako kroniketan Kaplan epailearen curriculum: juze sartu aurretik tabako industriaren abokatu izana zen; Donzigerren kontrako auzian laguntzeko Seward & Kissel aholkularitza pribatua kontratatu du, Chevron eta beste petrolio konpainien defentsan aritzen dena...

Aferaren laburpen bikaina egin du Charles Nesson abokatu eta juristak, AEBetako eskandalurik handienetako bat izandako *Pentagon Papers* hartan Daniel Ellsberg defenditu zuenak. Nesson bere ikasleei esan die: "Donzigerrek erakusten du ondoen nola gaur pertsona bati uka dakioken epaiketa justu bat horrelako auzibide zibil asimetriko batean". Pertsona bati... eta Ekuadorreko milaka herritarri. ●



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

NINA MÛR
eyewear

*Egurrezkoak
Eskuz landuak banan-banan
Jasangarriak
Arinak eta erresistenteak
Kalitate handiko eguzki-lenteak*



Hernani 23, 20004 Donostia • 943 420 624 • zinkunegioptika.com

Manuel María Ruiz

MENDI INGENIARI EUSKALTZAINA



GURE UDALETAN OBRA GOSEAK EZ DU AZKENIK



Neurrizko, zentzuzko, zuhur ageri da zaratotsa nagusi den mundu zementuz josian. Mendi eta basoak izan ditu lantegi, eta sen on handiz mintzo da hala naturaz, nola haren girbin hiriaz. Apal eta sotil ari da Arabaz, toponimiaz, euskaraz... Indarraren arrazoirik gabe, arrazoiaren indarra du Ruiz Urrestarazuk.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Donostian jaioa zaitugu 1941ean, baina Iruñean zinen handik hilabetera.

Alderantziz da, nahi baduzu, gurasoak Iruñean bizi baitziren urte bat lehenago. Aitak enpresa kimiko batean egiten zuen lan, kudeaketan. Hala ere, aita zein ama, donostiarrak ziren biak, erlazio estuan ziren Donostiako jendearekin, eta nahia-go izan zuten umeak izateko Donostiara joan, espreski. Horrelaxe jaio ginen lau senideok Donostian, nahiz Iruñean bizi ginen. Seme-alabetan neu izan nintzen etortzen lehena.

Euskaraz hazi zineten?

Ez. Garai hartan, Donostian, esparru pribatuari dagokionez, euskara ezagueraren arabera erabiltzen zela esango nuke

eta, gurean ez zen erabiltzen, zenbait esaera izan ezik. Hala ere, gogoratzen naiz Donostiako kalean parra-parra egiten zela euskaraz, nahiz eta haren erabilerara formala debekatuta egon. Gogoratzen naiz, Insalus ur mineralak, artean 1960ko hamarkadan, espainiar bandera zeramala botiletan. Eta Tolosako telefonika kabinetan gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez edo italieraz hitz egin zitekeela, baina ez euskaraz.

Ez euskaraz.

Euskarak eta politikak musika isila osatzen zuten aldi hartan. Herri giroa ere, nola-halakoa izango zen gerra zibila eta gerraondo gogorraren ondotik. Ni ez nintzen asko konturatzen gauza haie-taz. Hala ere, bi gogorapen ditut bizi-bi-

zirik. Bata, aitak kontatu zidan... Bigarren Mundu Gerra garaian, [Winston] Churchillek BBCKo frantses emisioan esan zuen hura: "Il faut nous livrer de la pestilence nazie" (Nazien pestilentziatik libratu beharra dugu). Eta bestea, urte batzuk geroago, neronek entzun nuena... Ile apaindegian nengoen eta periodikoak Francori egindako elkarrizketa bat zekarren. Kazetariari erantzunez, Francok zioen Pierre Laval, Vichyko Gobernuko lehen ministroa izandakoa eta 1945ean babes bila Bartzelonara joan zena, bere borondatez itzuli zela berriro Frantziara. Hori irakurri, eta ilea mozten ari zitzaidan ile-moztailea sutan jarri zen, ozen esanez "¡Esto es el paroxismo de la desvergüenza!" (Hau lotsagabekeriaren paroxismoa da!). Harridura eragin zidaten



Manuel María Ruiz Urrestarazu

DONOSTIA, 1941



Iruñean bizi ziren guraso donostiar-
rak, eta Donostiara egin zuten, be-
rriaz, lau seme-alabak jaiotzeko
garaian: Manuel María, Mari Paz, Pa-
blo eta Eugenio. Gure solaskideak
Iruñean, Zaragozan eta, azkenaz
beste, Madrilén egin zituen ikas-
ketak. Mendi Ingeniaritza burutu
eta Durangoko Baso-zentralean eta
Bilboko La Papelera Españolan lan
egin zuen. 1972an ezkondu, eta, on-
doko urtean, Arabako Diputazioa-
ren Mendi zerbitzuan zen lanean.
Bertan sartu zen erretretan, ordu-
rako zuzendari zela. Euskaltzain ur-
gazle hautatua 1969an, ohorezko
kide izendatu zuten 2014an. Na-
turaren baretasuna transmititzen
duen laguna Ruiz, porlandia zail za-
kar honetan.

haren kulturak eta, batez ere, haren
ausardiak. Horrela zen giroa orduan,
gazi-gezakoa.

Donostian jaioa, Iruñean hazia, Zaragozan eta Madrilén ikasketak egina...

Iruñea Zaragozaren unibertsitate ba-
rrutikoa zen, eta Zaragozara joan nin-
tzen 1958an. Zientziak ikasten urtea
egin eta, ondoren, unibertsitatera. In-
geniaritza programak aztertu nituen,
eta zalantzan ibili nintzen, ea Ingenia-
ritza Agronomoa ikasi, edo Mendikoa.
Mendiak eta basoak maiteago nituen
laborantza edo hazkuntza baino, eta
Mendi Ingeniaritza egitea erabaki
nuen. Orduan Madrilén besterik ez ze-
goen hura ikasteko aukera, eta haraxe
joan nintzen. Euskal Herri hezeko pai-
saia zen nik umetatik maitatua nuena
eta Zaragozako idorra gertatu zitzaiz-
dan. Madrilékoa, berriz, banekien as-
koz hobia ez zela baina *saudade* dela-
ko hori gainditu eta Madrilera!

Zein giro zegoen Zaragozako ikasleen artean? Euskaldunik franko izango zen han, ala?

Egia esan, denbora gutxi eman nuen
inguruko giroa dastatzen. Buru-bela-
rri sartu nintzen estudioan. Lehenbai-
lehen bukatu nahi nuen kurtsoa. Baina
bai, euskaldunak baziren Zaragozan.
Haien artean, Xabier Arzalluz zena.
Baita Alberto Sarazibar gasteiztarra
ere, gero neure mediku izango nuena.
Hala ere, Zaragozako gogorapen atse-
ginen artean bat esango dizut: uda-
berrian gelako leihoa irekita *Upupa*
epops hegaztiaren kantua entzutea,
argi-oilarrarena.

Madrilén egin zenituen Mendi Ingeniaritza ikasketak, eta euskaraz ere orduantxe ikasi omen zenuen, Andoni Urrestarazu, Umandi-ren gramatikarekin...

Bai. Karreraren azken kurtsoetan la-
saia go zaude eta denbora gehiago
duzu gustatzen zaizkizun beste gai ba-
tzuk aurrera ateratzeko. Nire kasuan,
euskara nuen zain. Euskara entzuna
nuen, ume nintzenetik, eta oso hurbil
gertatzen zitzaidan, baina ez neraman
barruan, euskara ez nekien eta. Eta
ez nuen gabezia horrekin bizi nahi.
Horrela, behin, Madriléko Gran Via-n
zegoen Espasa-Calpe liburu dendan
Umandiren gramatika erosi eta orriz
orri ikasten hasi nintzen. Bestalde,

Madrilén bazen ikasle euskaltzalez
osatutako talde bat, eta haiekin ha-
rremanetan jarri nintzen. Euskaraz-
ko mezak antolatzen hasi ginen Juan
XXIII ikasle egoitzan, han bizi baitzi-
ren ikasle haietako asko. Hantxe izan
genituen, adibidez, Manuel Odriozola
Lesaka eta Jose Antonio Retolaza, *Kili*
kili aldizkaria sortuko zuena. Manuel
Odriozolak euskarazko eskolak ema-
ten zituen, kantuak tartekatuz. Une
atsegingarriak izan ziren, elkar ezagu-
tzeko aukera eta solas egiteko parada
izan genuen.

Hantxe doktoratu zinen: *Especies* *forestales arbóreas en la toponimia* *vasca* (Baso zuhaitz-erako espezieak euskal toponimian) izan zenuen tesia.

1965ean bukatu nituen ikasketak eta,
doktoregoari dagokionez, Madrilén
Edafologia irakasle izan nituen bik
piztu zidaten asmoa, baina ez Madri-
lén, Arrasaten baizik: Antonio Nicolas
Isasa eta Jose Manuel Gandullo ziren.
Pinus radiata-ren eta lurraren arteko
erlazioak aztertzerako Euskal Herrira
etorri ziren. Nik, berriz, aspaldiko la-
gunak nituen arbolak eta izenak, eta
haiek toponimian aurkitzea aukera
polita eta erakargarria zela pentsatu
nuen. Horrela sortu zen tesia. Arbo-
lén izenak zuzen ematea beti da ego-
ki, eta izen ilun edo lausotuak argiago
ikusarazten ahalegintzea beti da lan
atsegina.

1965ean burutu zenituen ikasketak. 1968an Gasteizen zinen...

Bai, ikasketak burututa, lana eskai-
ni zidaten Madrilén, baina nik hona
nahi nuen. Laboral Kutxan [Caja Labo-
ral Popular, garai hartan] lana aurkitu
nuen, nekazaritza eta basogintza alo-
rrean ziharduten kooperatiben ahol-
kularitzan laguntzeko. 1960an, berriz,
gurasoek El Portalon jatetxea hartu
zuten errentan eta Gasteiza etorri zen
familia osoa. Nik, Madrilékoak egin
eta honaxe etorri nintzen, gurasoen
etxera.

1963ko abendukoa da Gasteizko lehen ikastola gerra ondokoa. Su hartatik talde bat sortu zen, eta bilerak izan ziren 1968ko urtarrila-otsailetan Estibalizko monasterioan. Bilera haietako baten aktan ageri da zure izena.



Igandero biltzen ginen Aita Isidor Baztarrika Munduaterekin, priorearekin. Gizon eta monako abegikor eta erakargarria zen. Gure helburua zen Araban zehar euskarazko mezak eta klaseak antolatzea, eta asmo hori eratzeko toki egokiena Estibaliz iruditu zitzaigun. Poliziak susmo politikoa izan zuen bilera haietaz eta kazetetan informazio okerra eman zen, ozen eman ere, bilera lasai eta adiskidetsu haiei buruz, eta pikutara bilerak betiko. Nor bere aldetik ibiliko zen aurrerantzean.

Isidor, edo Isidro, Baztarrika. Goresmena besterik ez dut aditu hartaz...

Esango dizut. Urte hartan, udazkenean, Euskaltzaindiaren Biltzarra izan zen Arantzazun, euskararen batasunarena. Elkarrekin joan ginen Aita Baztarrika eta biok. Joan-etorria egin genuen egunero. Joaten nintzen Estibalizera, hartzen nuen Aita Isidor, eta Arantzazura. Iluntzean, etxera. Adiskide bihotzeko eta mina nuen, eta dut, nire barruan. Gure hiru alabak ere berak bataiatu zituen Estibalizen.

Euskara girorik batere bazen 60ko eta 70eko hamarkadetan Araban?

Aramaio, Legutio zati bat eta Gorbeia aldeko hiltun batzuk izan ezik, euskara ia galduta zegoen Araban. Gogoan dut nola Entzian, 1964an, txabola bati "la

txabola del vasco" (euskaldunaren txabola) deitzen zioten, han artzain euskaldun bat egoten zelako. Gasteizen, berriaz, euskara gutxi, asteburua ez bazen, behintzat. Astearen amaieran Aramaio, Legutio, Otxandio, Ubide eta, batez ere, Deba arrotoz erostetako egitera Gasteizera etortzen zirenek giroa euskalduntzen zuten, ordu batzuetan bazen ere. Ez du oraingo antzik. Aldaketa oso nabaria izan da, bai Gasteizen, baita Araban ere. Adibidez, Iruñea eta Gasteiz erkatzen baditugu, euskararen presentzia gaur handiagoa da Gasteizen Iruñean baino, eta orain dela berrogeita hamar urte alderantziz zen.



Iruñea eta Gasteiz erkatzen baditugu, euskararen presentzia gaur handiagoa da Gasteizen Iruñean baino, eta orain dela berrogeita hamar urte alderantziz zen"

1969an, euskaltzain urgazle izendatu zintuzten...

Arrasaten eta Durangon lanean ari nintzena, eta partez, Gasteizen, euskara munduan sakontzen joan nintzen eta, horrela, euskal kulturaren langile mordoarekin erlazioak ehundu nituen.

Kontua da 1969 hartan, Euskaltzaindiak lurralde guztietara zabaltzeko nahi izan zuela bere ekimena eta, horretarako, hiriburu guztietan jarri zituen ordezkariak. Araban, Aita Baztarrika euskaltzain urgazlea zen eta urtea lehenago Estibalizko bilera haietara joandako bi pertsona proposatu omen zituen urgazle izendatu eta Arabako ordezkariak sendotzeko. Nonbait, Peli Martin Latorreren eta bion izenak eman zituen



ORIXEREN ESPERIENTZIA

"Mutikotan, eta gaztetan, Berastegin igarotzen genituen udako oporrrak... San Lorentzo Larre ermita inguruko pago motzetako itzalpean arnasa hartzea, Ipuliño tontorretik paisaia ikustea, Aintzerga eta Urto hariztietan onddoak biltzea, San Sebastian ermita erpinean goi, zelaia inguratuta, Irlandako paisaiaren bat izango balitz bezala... Zorionez, postal horrek oraindik ere horrela jarraitzen du. San Martin eliz atariko arkupeetan jolastu, erreka zapaburuak igerian ikusi, kaminero etxean euskaraz besterik ez entzun, perratzailea lanean ikusi... Gure Orixeren esperientzia partikularra zen hura".

IZEN KATALOGOA

"Euskara munduan sakontzen hasi nintzen, eta hainbat jende ezagutu nuen: Jose Luis Lizundia, Juan San Martin, Koldo Mitxelena, Jesus Altuna, Jesus Elozegi, Plazido Muxika, Aingeru Irigarai, Jose Anjel Irigarai, Xabier Irigarai, Abel Enbeita, Henrike Knörr, Gerardo Lopez de Gereñu, Mikel Zarate, Josu Oregi, Mertxe Oñatibia, Karmele Rotaetxe, Jose Antonio Arana, Jose Mari Satrustegi, Mauro Elizondo, Dionisio Amundarain, Imanol Aldaregia, Hiazinto Fernandorena... Burura datozkidan izenak dituzu".

PERTSONA IZENAK

"Haritz, Itsaso, Haizea, Goizalde, Harri, Hodei... Toponimia naturalaren zati humanista bat da. Pertsonen izen propioak mende mende eta modari jarraiki aldatuz joan dira zibilizazio diferenteetan. Euskal Herrian gertatu dena kuriozkoa da, hala ere. Europan dauden modelo estandarretatik bereizi gara. Beste herri batzuetatik bereizteko, Espainiatik eta Frantziatik, batez ere, tokiko izenetara jo dugu eta pertsonen izendegia gero eta naturatuagoa gertatu da".

Aita Baztarrikak. Eta horra hor nire bu-
rua Euskaltzaindian.

**Euskaltzaintzak gorabehera, mendi
ingeniari izan zaitugu beti. Baduzu
lan bat aski berezia egina: 52 zuhaitz
eta zuhamuxka espezie autoktono
eta dozena bat landare exotiko,
batzuk Himalaiakoak, katalogatu
zenituen Arraia-Maeztuko Igoroin
arroila ezinago ederrean.**

Dakikezunez, garai bateko Igoroin he-
rrixka arro baten barrenean zegoen.
Arroko maldak, berriz, eguzki erripan
haritz hosto-txiki iharrez hornituta zeu-
den: *Quercus faginea* eta *Acer opalus*-ez
hain zuzen. Itzalpeko aldean, aldiz, pa-
goz estalita: *Fagus sylvatica*-z, alegia.
Hosto iharrezko malda horiek arrosa
kolore ederrez beztitzen dira udazke-
nean. Igoroin barreneko ibar meharra,
lehengo etxosteko ortu zaharrez bete-
ta zegoen. Eta ortu txiki horietan, espe-
zie diferentez osatutako arboretum bat
prestatu zen eta, han, besteak beste, Hi-
malaiako izei eta zedroak landatu ziren.
Horrela egin genuen katalogo hori. Dena
dela, gero ere, Arabako beste hainbat
sailetan, eta eskala handiagoan, espezie
-saioak egin genituen, dela Armentian,
Albinagoian, Herrera ondoko Arrategin,
Montorian, Bastidan, Okendoko Basau-
rin, Amurrioko Artxandan, Ganboako
Izuzkitzan... hainbat tokitan!

**Armentia, Albingoia, Arrategi,
Basauri, Artxanda... Arabako
toponimia, euskararena.**

Araba euskalduna zela erakusten digu
toponimiak. Horra hor hiriburuaren bi
izenak ere, biak euskaldunak: lehena,
Gasteiz; bigarrena, Vitoria, XII. mende-
ko Victoria, euskaldunen ahoskeran ha-
siera-hasieratik Vitoria bihurtu zena...
Toponimia txikiari begiratuz gero, he-
go-ekialdetik agerraldi xumea egin zuen
nafar erromantzeak, eta hego-mende-
baldetik, berriz, gaztelerak, baina Araba-
ko lurralde gehiena euskal toponimiaz
josita dago.

**Non edo han irakurri dizut arabar
toponimiak zenbait euskalki ere
erakusten dizkigula...**

Bai. Arabako euskalkiak, arabarak, na-
far-gipuzkeraren kutsua du ekialdean.
Mendebalderantz, bizkaieraren antza,
baina, beti, ñabardura edo aztarna zahar
propio batzuekin. Jose Luis Lizundiak
esana du euskal toponimoak meridiano-
ka errepikatzen direla. Eta egia da, ha-



laxe da, oro har, bederen. Horra Larrea,
hala Barrundian nola Zornotzan; horra
Hermua, bai Barrundian eta bai Bizkai-
ko Ermuan; horra Ibiña, dela Ganboan,
Zigoitian eta Gasteizen, eta, are, Ibiña-
ga, Ibarrangelun; horra Markina, nahiz
Zuian eta Mentialdean, nahiz Bizkaian...
Ibiña hitzaren kasua kuriosoa da: Uribar-
ri-Ganboan XVI. mendeko dokumentu
batean Errekaibiña toponimoa ager-
tzen da; badirudi ibiña hidro-
nimo bat dugula eta behar
bada *ibin ibi*-ren men-
debaldeko aldaera da.
Gero mendebalderago,
Arraton, Ubiñarrate to-
ponimoa dugu; hor *ibi-
na, ibiña* eta *ubiña* egin
da, Orozkon izena eta
uzena binomian gerta-
tzen den erara.

**Zein harreman dute,
oro har, baso-mendiek eta
gizakiak?**

Paisaia eta gizakiak ezin dira banatu.
Paisaia gure etxearen zati da. Gure etxe
zabala. Paisaiarik gabeko *Metropolis* film
famatua itogarria gertatzen zaigu, adibi-
dez. Gizakiaren ekilibriorako naturaren
paisaiak behar beharrezkoak dira, gure
etxe eta gure burua sano mantentzeko
haiek zaindu eta ondo antolatu beste
biderik ez dago. Gaur egun, nire ustez,
problema nagusia hiri eta industria ere-
muen urbanismoa da. Urbanismotik
kanpo dagoen naturak klimaren eta us-
tiapenen arabarako bilakaera izango du
baina, gaur egun, jasangarria da egoera.
Besterik da hirietan gertatzen dena.

Zer dugu hirietan?

Udaletan egiten diren obra etengabeko
horiek-eta! Gure udaletan obra goseak
ez du azkenik. Apurtu eta ireki, jo eta ke,
ase gabe. Hiri guztietan, eta hiri handie-
tan, batez ere. Pertsonen lasaitasuna ez
da errespetatzen. Hiriek obretarako di-
rudite eta ez obrek hirietarako, hau da,
bizlanleentzako; gero eta deserosagoak
gertatzen ari dira hiriak. Hiria ez da
niretzat, ez da bakoitzarentzat.

“

**Paisaia eta gizakiak
ezin dira banatu. Paisaia
gure etxearen zati da. Gure
etxe zabala. Paisaiarik
gabeko 'Metropolis' film
famatua itogarria
gertatzen zaigu”**

Beste problema gogorra,
gaur, zaratarena. Azken
urteetan edonora zabal-
du da zarata. Etxeetan,
dendetan, hoteletan,
ospitaleetan, edozein
tokitan, zarata. Bar-
edo tabernetako “gi-
roko musika” hori-eta!
Horra hor antinomia: gi-
roa eta musika. Are gehia-
go, kasu gehienetan delako
musika horrek ez du izen hori
merezi. Udalen lizentziak terrazak ire-
kitzeko, inguruan bizi diren biztanleak
kontuan izan gabe. Sakelakoan erabilera,
garraio publikoan, batez ere, jasanezina
da. Gero eta enpatia eskasagoa suma-
tzen dut gizartearen.

**Ekonomiak ekologiari gaina hartuta
bizi gara aspaldi...**

Baina nahitaezkoa dugu natura zaintzea,
geure etxea dugu! Hala ekologia nola
ekonomia, etxea zaintzeko baliabideak
ditugu. Gero eta kontzientzia handiagoa
dago natura zaindu behar horretan bai-
na *urbs* edo hiri alorrean, besteari zor-
diogun enpatian, herren gabilitza. ●



Iritziak

Lan istripuak saihestea ez da lehentasuna



ENDIKA ALABORT
AMUNDARAIN
EKONOMIALARIA

Beste langile bat hil da lanean, lan istripu baten ondorioz. Urte hasieratik hamasei hil dira (apirilaren 12ko datuak dira); 2020an, hildakoak 75 izan ziren. Saihestu ezin den kasualitatea, patua balitz bezala hartzen da, zorte txar baten modukoa. Patronalek tragedia pertsonal eta enpresarial onartezinari buruz hitz egiten dute, baina aldi berean mila langileko lan-istripuen indizea murrizten doala azpimarratzen dute, guztiak pozik, orduan. Indizeak, zenbakiak baikara.

Ezaguna da behin-behineko kontratu bat duen langile batek, behin betiko kontratua duen beste baten aldean, lan istripua izateko 1,7 aukera gehiago duela. Ez da lan esperientzia faltaren ondorioa, baizik eta lan baldintza okerren efektu zuzena. Kolektibo honek lan baja gutxiago hartzen du, lan kontratua ez berrizteko arriskua dela eta. Horri gehitu behar diogu lan istripu bat izateko arriskua handiagoa dela 1 eta 25 langile artean duten enpresetan, gure enpresa sarean ohikoa den tamaina, zeinean enpresarekiko harremana estuagoa den. Kasu honetan, langilearen okerrera.

Datuak gordinak dira. Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan, 2019. urtean 46.585 lan istripu izan ziren; horietatik 308 oso larriak. Datuetan ez da lan gaixotasun anitz sartzen, horien onarpena mutuen edo Espainiar Erresumako INSSren esku baitago. Adibiderik garra-

Behin-behineko
kontratu bat duen
langile batek, behin
betiko kontratua duen
beste baten aldean,
lan istripua izateko
1,7 aukera gehiago du

tzena amiantoaren biktimena da, kasu gehienetan epaitegietan amaitu behar baitute, sarritan langilea zendu ostean.

Arrisku psikosozialak beste mundu bat dira. Estatistika zehatzak eskuratzea oso zaila da; gainera, horiei aurre egitea ia ezinezkoa da, suposatzen delako lan gainkargak eta gehiago produzitze-ko presioa naturalak direla. Enpresak erantzule zuzenak dira, nahiz eta euren helburu nagusia irabaziak egitea den (plusbalioaren erazketaren bitartez). Lan egiteagatik ordaintzen digute, ez osasuna lanean galtzeagatik.

Beno, arazo publiko hori saihesteko Administrazioak jardungo du. Horretarako lan osasuna bermatzeko baliabideak jarri beharko lituzke, lan istripuak saihesteko dagoen tresna publikoa erabiliz: Lan Ikuskaritza da lan osasuna bermatzeko duen erreminta. Dena dela, zein da arlo horretan egiten duen esfortzua?

Hasteko, 2020ko datuen arabera, EAEn 33 inspektore aktibo daude; Bizkaiko kasuan, ikuskapen-lana egin dezaketenak 15 dira. Herrialde historiko horretan ikuskari bakoitzari 29.437 langile dagokio; Araban eta Gipuzkoan ratio horiek pixka bat hobeak dira, baina antzeko zenbakitan mantentzen da. Bizkaian ikuskari bakoitza urtean 300 espediente betetzen ari da, lan-kantitate handia dela eta. Nahiko desegituratuta dago Lan Ikuskaritza eta ez dago aukera materialik enpresetara prebentzioa egitera joateko.

Aldera dezagun EAEko Lan Ikuskaritza polizia ratioekin. Ertzain bakoitzeko 274 pertsona daude, edo 199, udaltzainak ekuazioan sartzen baditugu. Erabaki politikoa dela agerikoa da.

Horrela uler daiteke langileen osasunaren aurkako enpresen inpunitatea, urtez urte hainbeste hildako, istripu eta arrisku psikosozialei lotutako bajak; zaindari eginkizuna duenak (EAEko Administrazioak) paso egiten baitu. Horrek kostu ekonomiko handia du (beste kostu ez ekonomikoen artean, pertsonen duintasuna eta osasun mentala, adibidez), baina kostu hori ikussezina da, langileok geure poltsikotik eta gure osasunarekin ordaintzen dugulako. Azken finean, egoera hau klase borrokaren negarren adibidea da; badakigu gobernua noren aldean lerratzen den. ●

Kuir



JUNE FERNÁNDEZ
KAZETARIA

Feminista bakartia izan nintzen 22 urte bete arte. Martxoak 8ko manifestaziora bakarrik joan nintzen. Irakurri nituen lehen obra feministak nire aitaren neskalagunen apalategitik hartutakoak ziren. Kazetaritza ikasketak bukatu eta blog bat sortu nuenean, Euskal Herriko blogosfera feminista deskubritu nuen, eta hori izan zen nire sarbidea mugimendura. Medeak taldearen blogak bereziki deitu zuen nire arreta, izan ere, haien diskurtso erradikala, estetika apurtzailea eta jarrera gozagarria zeharo erakargarriak suertatu zitzaizkidan. 2008an Portugaleten egin ziren Euskal Herriko Jardunaldi Feministetan eman zuten *drag king* taillerak liluratu ninduen eta urte horretan ere Artelekun egindako FeminismoPornPunk jaialdian parte hartu nuen.

Han ezagutu nituen Itziar Ziga idazlea, Paul B. Preciado pentsalaria eta Diana J. Torres performerra, eta haien liburuekin osatu nuen nire liburutegi feminista. Erreferente horiek nire pentsaeran eragin handia izan zuten, besteak beste, prostituzioaren eta pornoaren eztabaidan. Generoa performance hutsa dela ikasteak feminitate normatiboa deseraikitzen lagundu zidan. Aldi berean, heteroarauaz askatzeko, nire irrika lesbikoak esploratzeko eta bolle-
ra politikoa bilakatzeko urratsak ematera bultzatu ninduten.

Garai hartan Bizkaiko SOS Arrazakerian militatzen nuen eta nire kideekin 2009an Granadan ospatu ziren Espainiar Estatuko Jardunaldi Feministetara joan ginen. Han hainbat talde eta norbanakok (Medeak, Itziar Ziga, MDMA, Garaipen, EHGAM, Aitzole Araneta, 7menos20 eta Bizigay barne) "*Manifiesto para la insurrección transfeminista*" ("Matxinada transfeministarako manifestua") egitasmoa aurkeztu zuten.

Emakume singularretik at dauden subjektu politikoen arteko alianza aldarrikatu zuen: bollerak, transak, etorkinak, zapia daramaten andrak, sexu langileak, eta abar. Transfeminismoak kuir mugimendua, feminismoa eta antiarrazismoa uztartu zituen eta bat egin nuen.

Esango nuke gure autobiografia feministek arbitrariotasun puntu bat dutela. Feminismora hiru urte lehenago heldu izan banintz, akaso Euskal Herriko Bilgune Feminista izango litzateke nire eskola, eta bost urte ondoren, FeministAlde. Agian nire pentsaera oso bestelakoa litzateke Bizkaiko Emakume Asanbladako atea jotzera ausartu izan banintz edo feminismo marxistari buruzko kongresu batera joateko parada izan banu.

Horregatik ez dut ulertzen korronteen arteko norgehiagoka. Eta biziki tristetzen nau azken boladan *kuir* behin eta berriro erdeinuz erabiltzen dela ikus-teak, ez bakarrik eskuineko hedabide

eta foroetan baizik eta feminista transbo baztertzaileen ahoetan ere. Asmakizun intelektual neoliberal ulertezinaren parodiaren aurrean, sistemaren bazterretatik sortutako erresistentzia antipatriarkal eta antikapitalista dela azpimarratu nahiko nuke.

Genero ariketak liburuan, Amaia Alvarez Uriak gogoratzen du *queer* ingelesez gay eta lesbianen kontrako irain izatetik (*arraro* esan nahi du) sexualki normatiboak ez direnek berjabetzera pasa zela. "Hemendik sortu zen *queer* teoria, kultura edo mugimendua deritzona, heteronormatibitatea salatzeke espazio politiko bat, identitate transgresoreen aldeko ekimena". Coco Riot artistaren esanetan, kuir "normalak izaten saiatzean porrot egiten dugunon arteko saretzea da, alegia, arau hiltzaile bati diziplinatuta gaudenen arteko saretzea".

Kuirra harrotasunean datza, eta ni feminismora kuirretik heldu izanaz harro nago. ●



PAULA ESTÉVEZ

'Next Generation': berde eta digitala



IÑAKI BARCENA HINOJAL
EKOLOGISTAK
MARTXAN-EKO KIDEA

Horrela dio planetan inoiz egon den zor publikoaren programarik handinahienak, datozen 7 urteetan 750.000 milioi euroko diru-laguntzak eta maileguak (erdibana) banatuko dituenak. Europa suspertzearekin batera, ekonomia berdeagoa (trantsizio energetikoa) eta digitalizazioa, hots deskarbonizazioa bultzatzea, ditu helburu. Aro digitalean bizi garenetik, internet gure bizitzan agertu zenetik, teknologia digital berriek gure produkzio, komunikazio, hezkuntza edota kontsumo ereduak modu nabarmenean aldatu dituzte. Baina internet ez dator zerutik, askok pentsarazten digutenaren kontra. Ez da hodei arin eta etereoa. Azpiegitura erraldoi bat bezala ulertu behar dugu, kontinenteen arteko kable eta makro-ordenagailu batzuen bidez, datuak transmititzen dituenak. Gizakiok sortu dugun azpiegitura handiena eta konplexuena. Teorian, ekonomiaren desmaterializazioa eta deskarbonizazioa lortzeko, baina datuek ez dute horrelakorik baieztatzen.

Youtube da energia elektriko gehien kontsumitzen duen enpresa mundu osoan, adibidez. Teknologia digitalen kontsumo elektrikoa batzen badugu, ekonomialari batzuek egin duten moduan, AEB eta Txinaren atzetik munduko hirugarren kontsumoa izango litzateke (%8).

Hots, energia eta materialen erabilera,

internetek ez du ekarri inongo desmaterializazio edo deskarbonizaziorik. Aldiz, teknologia digitalen energia eta lehengai metaliko batzuen kontsumoa da gehien handitu dena azken hamarkadan eta gora doa digitalizazio prozesuen zabaltzearekin.

Alabaina, dispositibo digitalek, energiaz kanpo, materia berezi batzuk (kobrea, litioa, kobalto, indioa, lur arraroak...) behar dituzte eta horrek, dinamika estraktibistekin batera, arazo sozial, politiko eta ekologiko larriak eragiten ditu.

Kontrola. Naomi Kleinek dionez, digitalizazioak kontrol soziala areagotu du asmo errepresiboekin, shock digitalaren doktrinaren bitartez. Google, Apple, Facebook, Amazon eta Microsoft (GAFAM) korporazioek, gure eguneroko bizitzaren jarduerak jarraituz lortzen duten datuekin negozio ederra egiteaz gain, ez dute ingurumena errespetatzen, demokraziaren aurkariak dira eta gure bizitza zelatatzen dute, kapitalismoak behar dituen pilatze eta akumulazio prozesuak egikaritzeko.

Azkenik, ekonomia hiperdigitalizatzek eta robotizatzek milioika enplegu suntsitzea ekarriko du datozen hamarkadetan. Beraz digitalizazio gehiago baino, norabide aldaketa edo ziaboga egin behar dugulakoan nago, etorkizuneko belaunaldientzat zor bidegabe eta onartezina saihesteko. ●

Zorretan



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Hondar egunotako agerpenen ildotik, euskaldunok egundainokoan iraganarekiko eta etorkizunarekiko zorretan gaudela ematen du. Julen Madariaga ETAre sortzaileetatik baten zentzeak hitzaren metxa berriz piztu duela dirudi: zorretan gabiltza beraz, bera eta bere lagunak ekinik gabe ez geundelako orain gauden egoeran, *Tatort* telesaila alemanez ikusten eta Komunikazio Ez Biolentoaren irakaspenak ikasten.

Hamalauko gerla bukatzean, gure arbasoei elizak disgusturaino errepikatu zien Frantziarekiko odolaren zorra ordaindurik, aberri txikikoek bazutela *de*

facto aberri handiko kide oso izateko eskubidea. Zordunak zirelako, dena onartu zuten, *erdi atzarrik, erdi lo, erdi hil* Niko Etxartek zioen bezala. Apez aurre-abertzaleek euskara galtzearen errua ere leporatzen zieten, bereziki emaztekier. Aterabiderik ez duen menpekotasun inplizitu baten ikurra da zorra, etxean, herrian eta munduan.

Zorra gurean ideologikoa da: kapitela eta interesak batuz, animalekoa bilakatu eta bizitzak eskatu dira horren kitatzeko, sakrifizioak, martirioak, eresiak... duela gutxi arte ezagutu dugun zordunon parafernalia. ●

Patriarkatua eta prentsa askatasuna



NEKANE TXAPARTEGI
IHESLARIA ETA KAZETARIA

LoRa irratia (www.lora.ch) erreferentea da Zürich eta inguruetan. La berrogei urte daramatza irratia ez komertzialak eta eleaniztunak, aktibistekin aktibistentzat, migratzaileekin migratzaileentzat, elkartasunetik kartzelan eta asilo zentroetan dauden presoentzat igortzen. LoRa polarizatzailea da, feminista, bere formatuek argi eta garbi boterea zalantzan jartzen dute eta, beraz, ziurrenik iraingarria da Zuricheko Polizia aparatuaentzat. Martxoaren 8an Emakumeen* Borroka Egunaren inguruan egin ziren protestetan, RADIA –LoRako erredakzio feminista–kalera atera zen, bilkuretatik eta manifestazioetatik zuzenean informatzeko eta mikrofonoen bidez emakumeen* aurkako indarkeria matxista salatzen jarraitzeko. Gu kazetari feministak gara eta ikuspegi horrekin informatzen dugu mikrofonoen bidez, kaletik eta estudioetatik.

“Ez zait gustatzen zuen irratian egiten duzuen”, polizia batek guri. “Eskerak, hori da gure helburua”, nik neure buruari... “Gustu” horren adierazgarri

‘Ez zait gustatzen zuen irratian egiten duzuen’, polizia batek guri. ‘Eskerak, hori da gure helburua’, nik neure buruari

da egun haietan sufritu genuen bote-re abusua: ‘radiak’, kazetari feministok geure buruari deitzen diogun moduan, ekimenetatik behin eta berriro kanporatzen saiatu ziren. Radia batek emakume kurdu bat galdekatu zuenean Poliziaren aldetik kalean jasaten duten errepre-sioari buruz, bera ere kontrolatu eta iraindu zuten: ea zer dioen *Racial Profiling* aipatzen duenean... Polizia talde batek, besoetatik heldu eta airean eraman zuen beste radia bat, neska baten aurkako jipoiaren berri ematen ari zenean... Poliziek ez gintuzten beraien errepre-

sioaren lekuko nahi eta aktiboki gure lana oztopatu zuten, prentsa askatasuna urratuz. Kazetari feministok gizonen polizien bidez jazartuak, kontrolatuak izan ginen, eta tokian egoteko ahozko debekuak jaso genituen etengabe. Estatu aparatua patriarkalak, gu isilarazi eta otzandu nahi gintuen.

Hurrengo egunetan errepre-sioak jarraitu zuen; gure lanak ere bai. Suitzan izandako feminizidioaren aurkako ekitaldietan (urte hasieratik bi emakume erailtzen dituzte astero), radioi grabatzea oztopatu ziguten, eta besotik tiraka eraman gintuzten identifikatzera. Poliziaren errepre-sioaren aurka deituriko manifestazioan ere, mikrofonoekin egin genuen gure protesta, eta poliziak fitxatu eta salaketekin mehatxatu gintuen.

Egitura patriarkal eta arrazistek oraindik ere eragin handia duten gizartean, kazetaritza feminista ezinbestekoa da. Horregatik gure mikrofonoekin ez esanekoak izaten eta ikuspegi feministaz informatzen jarraituko dugu, kontraboterea izaten! Hemen, Euskal Herrian eta edonon! ●



Zigorra



PABLO SASTRE FOREST

Udaberriko oporraldi garaian idazten dut hau. Bizi garen etxetik, bizi garen herritik edo bizi garen probintziatik hara egun batzuetarako irteteko baimena eman digutela-eta, gure esker ona autoritateei. Jakinaren gainean gaude: hala moduzkoak izango dira hemendik aurrera oporraldiak.

Mundua kontzentrazio-zelai batean bihurtzen ari zela entzun nuen lehenengo aldian, alderaketa gehiegizkotzat jo nuen. Orain, ez. XX. mendeko zelai izugarriak eraiki ziren kontrol-logika berean eraikitzen ari da bizi garen hau. Noski, bere dimentsioetan (eta, hargatik, bere oharkabea) ez ezik, erabiltzen dituzten teknologietan ere zenbait pauso haratago jo dute zelai-diseinatzaileek; izugarriari estutu berria eman diote.

Kutsatuta egoteko susmopean etorrikinak daramatzatela Italiako kostak korritzen dituzten itsasontziei begira, Erdi Aroan Europako ibaietan zebiltzan *ero-ontziak* etorri zaizkit... Eritik erorako pausoa ematen ari garen egunetan idazten dut hau.

“Defentsa gutxi dugula geratu da agerian. Bide libre dute gaixotasunak eta gaiztakeriak horrenbestean”.

Egun batzuetarako, zelaiko ateak erdi ireki dituzte... datoen birus-agerraldietarako, neurri murriztaile eta arau arbitrario berrietarako preparatzen ari zaizkigu. Oraindik ere lagun batzuek amets txar hau noizbait amaitu egingo dela uste dute. Ez da nire ustea; olatuka, faseka, beldurtuta eta triste existitzeko bizi arteko zigorra ezarri digute.

Bizia duen guztia xehatzeko, balio diona beretzeko eta balio ez diona erre eta kiskaltzeko misioa hartu du bereztzako makinak. Mintza gintezke makina horretaz; mintza gintezke bizitzaz,

Defentsa gutxi
dugula geratu da
agerian. Bide libre
dute gaixotasunak
eta gaiztakeriak
horrenbestean

heriotzaz... mailuak iltzeari legez, *positibo*en kopuruez eta herritarren arduragabekeriak baino ez zaizkigu ari.

Kontent egoten ahal dira esperimenteraren arduradunak. Asmo osoan edo hala beharrean, beren gorputz eta gogoak haien eskuetan uzten ari da jende gehiena. Indartsuak, ulertzen da: jokalditik indar berrituta aterako direlakoan baitaude. Ahulak, berriz...

Laborategiko nagusiek, direnak direlako horiek, eliteek, mila milioika gizakiren sarraskia gogoan darabiltela entzun nuen lehenengo aldian, ez nion kolorerik ikusi. Kosta egiten, horretarainoko ankerkeria imajinatzea. Geure begiz ikusten ariko ez bagina...

Ekintza-ahalez, harreman-ahalez eta adimenez motel heldu ginen oso lehenengo urteko udaberrira. Harrezkero defentsa gutxi dugula geratu da agerian. Bide libre dute gaixotasunak eta gaiztakeriak horrenbestean.

Asaldatuta segitzen dugu aditzen hainbat medikuren, hainbat politikariren, hainbat kazetariren ahotsak, txerto gehiago, kontrol gehiago eskatzen dituztenak. Bihotza golkoan dugula segitzen dugu ikusten, euren ikasleei mozala jan-

tzarazten dizkieten irakasleen eskuak. Norbere ardurapekoen onbeharretan ari direlakoan ote? Pentsa liteke, baita ere, bizirik ateratzen direnen trenean beren eserlekua ez dutela galdu nahi, edo hartarako txartela erosi nahi dutela. Oso mehe heldu dira, antza, eserleku horietaraino, hargatik euren hurbil-hurbilekoak edo maiteak izaten ahal diren biktimen intziriak.

Ez dakit profesional horiei guztiei kargu hartu beharko litzaiekeen: biktimetarik ere badira-eta eurak. Eta, guztiarekin, ume bat maskaratuta, iritzi bat isilarazita, lagun bat txertategira bidean ikusten dudak bakoitzean, ezin dut ekin, begiak haiengana doazkit.

Hauxe da, batzuen ustez, hitz bitan esanda, osasunari buruz marrazten ari den etorkizunerako plana: ale onak (aparra) hobekitzea, ale txarrak (zaborra) hil daitezen utzi, edo hilaraztea.

Susmatzen du pobreak, ke eta kaka zurruiloen artean sumatu, biziko bada, hobe duela makina horretatik apartean ibiltzea. Jarraitzen du, bizkitartean, bere hainbat *ahal* handiarazten dioten, baina bere *ahalmena* txikiarazten dioten smartphonea bezalako makina txikietan atzemanda. Alabaina makina horiek eurak dira, preseski eta ageriki, neurri handi batean, gogo (gogo-indarra, gogorarena, gogoeta) eta harreman estuak barreiarazten dizkietenak, eta ekintzarako ezintzen dutenak.

Pobreei, esan nahi baita, beste deus baino, bakean utz gaitzaten nahi dugun gizajende gehienari, gauzak *arte*an: lagunartean, maite artean, jendartean, eta gauzak *arte*z egitea, baizik ez litzaiguke eratuko: *arte*a.

Oraingoz izenik ez duen zerbaiten esperoan... ●

ARTISTAREN ESTATUTUA: ZER BERRI?

Araua nola moldatu artisten eta kultur langileen lanera, duina izan dadin

Artistaren Estatutua eratzeko sortutako azpibatzailearen txostena onartu zuen 2018an, aho batez, Espainiako Diputatuen Kongresuak. Hamarkadetako eskaerei erantzuten die txostenak, eta abiapuntu garrantzitsua da. Euskal Herriaren hegoaldean ere aspalditik ari dira kultur langileen jarduna modu egokiagoan arautuko duten neurrien inguruan hausnartzen, eta abagunea probestu nahi lukete premiazkoak diren aldaketak lehenbailehen egiteko.

 PERU IPARRAGIRRE

Hamarkada luzetako aldarrikape-nei erantzuten die 2018an Espainiako Diputatuen Kongresuan aho batez onartutako Artistaren Estatutuaren inguruko txostenak. Izan ere, hamarkada luzetan izan da agerikoa kultur langileen egoera ezegonkorra, krisialdiek are gehiago larriagotu dutena.

Txostenak sorkuntza artistikoari buruzko eta artisten eta kultur langileen lan baldintzak hobetzeko presazko neurriak eskatzen dizkio Espainiako Gobernuari.

Artisten egoera ahalik eta egokien erregularizatu eta hobetu ahal izateko eman beharreko pauso batzuk biltzen ditu txostenak, zerga-sistemari eta Gizarte Segurantzari buruzkoak, besteak beste. Artistaren Estatutua esaten zaiona, beraz, ez da lege bat, ezta lege-multzotxo bat ere. Alor ugari ukitzen dituen eta atalka garatu behar den bide-orria da, ezarpen konplexua duena. Dena dela, Espainiako Diputatuen Kongresuko babes zabalak esperantza apur bat ekarri zuen 2018an. Hiru urte beranduago, eta COVID-19ak areagotutako krisialdiak bete-betean harrapatuta, ordea, pazientzia agortzen ari zaie kultur

langileei, neurriak mantso ari baitira aplikatzen, eta gehienetan beraiekin kontsultatu gabe.

Artistaren Estatutua
ez da lege itxi bat,
garatu beharreko
bide-orri bat baizik

ZERTAZ ARI GAREN ARTISTEZ ARI GARENEAN

Artistei buruzko txosten ia guztietan agertzen da definizioaren auzia, hau da, nori buruzkoa den txostena, nori dagozkion proposatzen diren neurri eta arauak. Artistaren Estatutuaren txostenaren neurriak beren-beregi pertsona fisikoei dagozkie, langileei buruz ari da, eta ez enpresei edo elkartei buruz.

Kulturgintzaz jarduterakoan joera dago langileak, enpresak eta elkarteak

sektoreka banatzekoa, interes desberdinak dituzten eragileak zaku berean sartuz. Zenbait arazo partekatuak baldin badira ere, eta hartu beharreko neurri batzuk sektoreka hartu behar badira ere ez da egoera bera enpresena eta langileena. Txostenak sektorializazioa baztertu eta langileengan jartzen du fokua, izan horiek besteen kontura dutenak edo norberaren kontura lan egiten dutenak. Hala ere, azken urteetan asko zabaldu den “sortzaile” hitzaren atzean egon daitekeen artistaren sorkuntza hutsezko lanez haragokoei ere erreparatzen die txostenak, horregatik du ondokoa izen osoa: Artistaren, Sortzailearen eta Kultur Langilearen Estatutua.

Labide artistikoek hainbat berezitasun dituzte, berezkitzat hartzen direnak eta gaur egungo egoeran arlo horretan dabilzanentzat ahultasunak direnak. Nabarmenenak, lanaren ezegonkortasuna eta aldizkakotasuna. Berezitasunok ia ezinezko egiten dute jardun hori egun indarrean dauden arauen arabera modu duin batean garatzea. Ezegonkortasun horrek ia ezinezko egiten du profesionalizazioa.



GUERE EGOERA: DESAGERPENA. ZUEN KUDEAKETA: ANTZERKI HUTS
VUESTRA GESTIÓN UN ESPECTÁCULO. NUESTRO ESCENARIO: LA DESAPARICIÓN

TEKNIKARIOK SINDIKATUAREN
ELKARRETARATZEA

ARGAZKIA: ECUADOR ETXEA

Ikuskizunetako langileak protestan

Joan den urteko udan kalera ateratzen hasi ziren ikuskizunetako langileak. Teknikariok sindikatua aurkeztu zuten eta haien egoera larriaren berri eman zuten. Izan ere, aretoak itxita eta jendaurreko ekitaldiak erabat geldirik, kinka larrian geratu ziren ikuskizunetan teknikari lanetan aritzen direnak.

Haien lanaren izaera dela-eta hein batean bestelako artistenaren antzekoa da haien egoera laborala.

Besteak beste, zuzeneko ekidaldien sektorearen erregularizazioa eskatzen dute, erregimen arautzaile bereziturik ez dutenez ikusezintasun egoeran baitaude.

Lan bera egiten dutenen artean egoera oso desberdinetan daude langileak, batzuk autonomo gisa aritzen dira, beste batzuk soldatapeko finkoak dira, edo aldi baterakoak, obrakoak edo zerbitzukoak. Gainera, Eusko Jaurlaritzak emandako laguntzak nahikoa ez zirela ere salatu zuten.

SEKTOREA BATUTA

Azaroan aurkeztu zen ikuskizun eta ekitaldietako langile, enpresa, elkarte eta taldeak biltzen dituen Alerta Gorria ekimena. Batez ere erakundeen aurrean sektoreak duen ikusgarritasuna handitzea eta pandemia garaian areagotutako egoera ezegonkorrari aurre egiteko neurriak hartzea bultzatzea du zeregin nagusia Alerta Gorriak.

Besteak beste, udalek jendaurreko kultur jarduerak antola eta susta ditzaten eskatzeko lanetan ari dira, eta gobernuekin haien sektorearen egoerari buruzko elkarriketetan.

KRISIALDITIK KRISIALDIRA

Krisialdi garaietan are gehiago azaleratzen dira kultur langileen baldintza eskasak, berez larria den egoera are larriago bilakatzen baita, eta konponbideak are presazkoagoak.

2014an dagoeneko, 2008ko krisialdiaren itzaletan, kulturgintzaren sektoreko 300 herritar baino gehiagoren ekarpenak bildu zituen Guk Geure Kulturaz (GEUK) plataformak Durangon eginiko bi biltzarretan. Ekarpinak, batez ere kulturgintzaren eta kultur politikaren bueltakoak ziren. Urtebeteren buruan aurkeztu zuten Premiazko Neurrien Egitasmoa deitu zutena. Neurri horien artean zeuden "Sortzailearen Estatutua sortzea sortzaileen eskubideak babestu eta kontratazioak erregulatze" eta "sortzaileentzako proposak diren epigrafe berriak sortzea".

Egungo Artisten Estatutuaren txostenean biltzen diren hainbat neurri proposatu zituen plataformak. Kulturaren Euskal Behatokiari aurkeztu zizkieten premiazko neurriok.

2016 amaiera aldera egin zuen Unidas Podemosen talde parlamentarioak, Espainiako Diputatuen Kongresuko Kultura batzordean Artistaren Estatutua lantzeko azpibatzerdea eratzeko proposamena. 2017 eta 2018 urteen artean osatu zuen azpibatzerdeak aipatutako txostena, hainbat kultur eragileren partaidetzarekin, eta geroztik txosteneko zenbait neurri lege bilakatu dituzten arren oro har auzia nahiko geldirik dagoela dirudi.



COVID-19aren izurriak areagotu duen krisiarekin, baina, berriro ere mahaigaineratu da kultur langileen lan-baldintzen auzia. Horren adibide garbia da orain dela urtebete, itxialdi betean, kulturgintzako mila norbanako eta eragile baino gehiagok babestutako Greba Digitala. Joan den urteko apirilaren 21ean eta 22an Interneten kultur edukirik ez partekatzeko eskatu zuten, eztabaida eragin, premiazko neurriak hartzea eskatu eta euskal kulturgintzaren ekosistemako partaideak bilduko lituzkeen mahaia osatzeko lanari ekiteko.

Ordukoan ere berriz jarri zuten mahai gainean artisten eta kultur langileen egoera prekarioa eta horri aterabidea eman beharra.



ZERTAN DEN MADRILEN OSATUTAKO TXOSTENA

Funtsean, egoeraren diagnostikoa eta horri aterabidea emateko zenbait proposamen egiten ditu txostenak. Proposamen batzuk osatuagoak dira, beste batzuk, aldiz, landu beharrekoak. Izan ere, "saski-nahaski" bat da Artistaren Estatutua deritzona, Eneko Olasagastiren hitzetan. Euskal Aktoreen Batasuna (EAB) antzezleen sindikatuko antolakuntza idazkaria da Olasagasti, eta dioenez hamarkadetan zehar pilatu diren aldarrikapenak biltzen ditu txostenak, askotarikoak, lan arloa gainditzen dutenak batzuk, eta erantzun desberdinak behar dituztenak.

Urteak daramatza gaiari jarraipena egiten Olasagastik eta, dioenez, txostenaren proposamenak lau multzo nagusitan bana daitezke. Batetik, zerga-sistemari dagozkion neurrien proposamenak leudeke. Esaterako, errenta-aitorpenaren egungo eredia ez da egokitzen artisten eta zenbait kultur langileren jarduerara. Urtebete baino gehiago luzatzen dira ekitaldi bakarrean kobratzen diren lanak, esaterako. Horregatik, epeak luzeagoak egitea eta urteko batzuek egitea proposatzen da. Neurri horiek hartzeko eskumena dauka Eusko Jaurlaritzak.

Bestetik, Gizarte Segurantzari dagozkion auziak leudeke, oraindik Espainiako Gobernuaren eskumenekoak direnak. Horien artean, kotizazio kuoten ezegonkortasunari irtenbidea ateratzea. Pandemiak areagotu egin du larritasuna, baina ohiko jardunarekin ere ezegonkorra da egoera: lan egiten duten egun zehatzetan baizik ezin dute kotizatu, esaterako, musikariak, aktoreak eta bertsolariek. Helburua litzateke lanik ez dagoenean ere babestuta egotea, Frantziako Estatuan indarrean dagoen Ikuskizunetako Intermitentearen Erregimenak ahalbidetzen duen moduan.

Hirugarrenik, trantsizio profesionalari dagozkion auziak daude. Eskarmen-tua eta formazioa eduki arren titulurik ez duten profesionalak bestelako lan esparruak, batez ere irakaskuntzari lotutakoak, zabaltzeko balio du trantsizio profesionalak, habilitazio baten bitartez tituluak eskuratzeko aukera ematen baitu. Hezkuntzari eta lan arloari dagokio gai hau, eta Espainiako Kualifikazioen Intitutua Nazionalak (INCUAL) kudeatzen eta ezartzen ditu habilitaziorako baldintzak, baina Lanbidek ere landu lezake horretarako programa bat, nahiz eta azken onespina Madriletik etorri.



AZKUE FUNDAZIOA

DURANGOKO AZOKA. Artisa eta kultur langileen topaleku bilakatu ohi da Landako, eta elkarrizketa ugari izan ohi dira profesionalizazioaren eta lan baldintzen ingurukoak.

Azkenik, arlo sindikalari dagokion adarra dago, artisten eta kultur langileen sindikatuak beste sindikatuen pareko zilegitasuna eduki dezaten ahalbidetuko luketen auziak biltzen dituenak. Izan ere, artistak eta kultur langileak biltzen dituzten sindikatuak ez dute legezko ordezkaritza erakundearen aurrean. Adibide gisa, Euskal Aktoreen Batasuna

Madrilen osatutako txosteneko zenbait neurriren gaineko eskumena Eusko Jaurlaritzari dagokio

antzerki enpresekin antzerki hitzarmena negoziatzen aritu da aspaldi luzean, eta badirudi lortuko dutela, baina hitzarmenerako legezko mahaia osatzeko orduan ELAk, LABek, CCOOk eta UGTk parte hartu behar izan dute negoziazio-mahaian, EABk 450 afiliatutik gora eduki arren.

Artistaren Estatutuaren gaia gertutik jarraitzen du, halaber, Marta C. Dehesak. Ilustratzailea eta argazkilaria da, baina baita kultur arloko aholkularitzan es-

pezializatutako abokatua ere. Besteak beste, Artistaren Estatutuaren inguruko azpibatzearen aurrean agertu zen Madrilen, bere ekarpena egiteko. Bere aburuz, garrantzizkoena Diputatuen Kongresuko alderdi guztiek txostenak sarreran dioena onartu izana da, bertan aitortzen baita zein den artisten eta kultur langileen egoera eta beraiei lanaren garrantzia, eta irtenbide baterako oinarriak jartzten baitira.

Diputatuen Kongresuak txostenari onespina eman zionetik neurri batzuk hartu dira dagoeneko. Bide-orri horren arabera orain arte hartu diren neurrien artean dago, esaterako, artistek behin erretiroa hartuta ere egile-eskubideen ordainketak jasotzen jarraitu ahal izatea. Hala ere, une honetan Artistaren Estatutuaren inguruko mugimendu handirik ez da ikusten, nahiz eta joan den martxoaren 25ean PSEko legebiltzarkide Alberto Alonsok Eusko Legebiltzarrean aurreratu zuen ministerioen arteko elkarrizketak martxan daudela transbertsala den neurri bat diseinatzeko.

Dehesaren ustez, baina, orain arteko neurriak ez dira ganoraz garatu. Ezarritako aldaketa zehatz batzuk bide-orrian onartuta baldin bazeuden ere beste asko azaletik baizik ez dira aipatzen, eta anbiguoak dira batzuk; are, batzuk kontraesanean ere erortzen dira. Agenda hori landu egin behar dela dio Dehesak; aspektu batzuk Espainiako Gobernuak,

baina beste batzuk, esaterako, Eusko Jaurlaritzak. Arauak onartu eta neurriak ezartzeko moduekin ere kritiko ageri da Dehesa. Izan ere, orain arteko neurriak dekretuz onartu dira, eta ez ezein kongresutan emandako eztabaiden bitartez, eta eragileekin harremana mantenduz.

Oraingoz Artistaren Estatutuaren inguruko txostenak proposatzen dituen neurrien %5a baizik ez da aplikatu, Dehesak dioenez. Bere iritziz ezinbestekoa da legegintzaren markoa aldatzea eta kultur gintzaren sektore ekonomiko gisa kontuan hartzea. Izan ere, datuen arabera, Barne Produktu Gordinarene %5 inguru dagokio kulturari, ezkutuko lana den zati handi bat kanpoan utzita.

Hartu beharreko neurrien artean kultur langileen mapeo bat beharrezkoa ikusten du Dehesak, sektore horretan lanean benetan nor ari den jakin ahal izateko eta horien arabera egiteko plan gintzak.

ARTISTAREN EUSKAL ESTATUTUA

Itxialdia amaitu eta Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak izan ziren, joan den urteko uztailean. Hauteskundeetan ere presentzia izan zuen Artistaren Estatutuaren auziak. Izan ere, EH Bilduren programa politikoaren helburuetako bat zen Artistaren, Sortzailearen eta Kultur

Langilearen Euskal Estatutua garatzea. Halaber, Jaurlaritza eratu berrian Kultura Sailburu karguari eutsi zion Bingen Zupiriak adierazi zuen Artistaren Estatutua legealdiko helburuetako bat izango zela, kultur langileen profesionalizazioan sakontzeko bidean.

2014an eratutako GEUK plataformak sortzailearen estatutua sortzea eskatu zuen

Hain zuzen ere, esan bezala, Espainiako Diputatuen Kongresuan onartutako bide-orriaren zenbait atal Espainiako Gobernuaren eskumenekoak badira ere, beste hainbat Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren eskumenekoak dira, zerga-sistemari dagozkionak, esaterako. Alde horretatik, badago zer eztabaidatu eta zer landu. Horrez gainera, baina, Josu Estarrona legebiltzarkideak martxoaren 25ean Eusko Legebil-

tzarreko eztabaidan azpimarratu zuen gisan, "estatuko estatutuak ez dituu aintzat hartzen euskal kulturaren eta euskarazko kulturaren nolakotasuna eta ezaugarriak".

Urtarrilean aurkeztu zuen EH Bilduk Eusko Legebiltzarrean Artistaren, Sortzailearen eta Kultur Langilearen Euskal Estatutuari buruzko ponentzia bat eratzeko legez besteko proposamena. Proposamena aurrera ateratzekotan, adituen eta arituen ekarpenak jaso eta horiekin osatuko zuketuen ponentzia, eta horren gainean eztabaidatu Artistaren Euskal Estatutuaren eraketa. Martxoaren 25eko eztabaidan, ordea, atzera bota zuten proposamen hori, EAJren eta PSEren aurkako bozekin. Beraz, gobernutik etorriko dena eztabaidatu besterik ez dute egingo Eusko Legebiltzarrean.

Hurrengo egunean aldiz, martxoaren 26an, Nafarroako kultur jarduera "duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehaztu eta adostearren" ponentzia bat sortzeko erabakia aho batez onartu zuen Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Kirol Batzordeak. Ponentziaren helburu nagusia izango da Nafarroako Artistaren Estatutua osatzea, horretarako sektoreko eragileak kontsultatuz.



GEUK PLATAFORMAren
premiako neurrien
egitasmoaren aurkezpena.

ERAGILEEN HASERREA

Eusko Legebiltzarrean EAJk eta PSEk Artistaren Estatutuari buruzko ponentzia sortzeari ezezkoa eman izanak haserrea sortu du kultur langileen artean. Ikus-kizunetako, ekitaldietako eta arte eszenikoetako langileak ordezkatzan dituen Teknikariok sindikatuak Kultura Saila kultur langileen bizitzarekin jolasean ari zela salatu zuen sare sozialetan, Jaurlaritzak lerroburuetan “euskal kulturaren profesionalizazioa” aldarrikatzen badu ere praktikan horretarako pausorik ematen ez duela nabarmenduz. Bingen Zupiriaren legealdi hasierako adierazpenak eta Artistaren Euskal Estatutuaren ponentziari ukoa bata bestearen ondoan erakusten ditu sare sozialetan zabal-dutako irudi batek, beste irudi batean zenbait salaketa egiten ditu sindikatuak. Besteak beste, 41 urtean sektorearen erregularizazioa desegokia izan dela eta egun sektorea txikituta eta lanik gabe dagoela dio mezuak, eta Eusko Jaur-laritzak emandako laguntzak eragileekin adostu gabekoak izan direla eta, ondorioz, porrot egin dutela.

Bingen Zupiriak Artistaren Estatutua legealdiko helburuetako bat zela adierazi zuen

Pandemia hasi berritan iragarri zituen Kultura Sailak kultur langileentzako eta enpresa txikientzako laguntzak. Lau milioi eta erdi euroko laguntza-poltsatik 845.000 baizik ez ziren banatu. Laguntzak jaso ahal izateko irizpideek eta baldintzek zaildu egin zuten kultur langileek beharrezko zituzten laguntzak eskuratu ahal izatea. Estarronak legebiltzarrean salatu zuen, hain zuzen ere, Eusko Jaur-laritzak kulturgintzako eragileekin kontsultatu ez izanaren ondorio zela laguntzen porrota, eta Artistaren Estatutuaren auzian berdin ez jokatzeko eskatu zuen.

Eneko Olasagasti ere haserre mintzatu da Eusko Legebiltzarrean ponentziaren aurka bozkatu dutenekin. Sindikatuan ez dute ulertzen zergatik ez den onartu Artistaren, Sortzailearen eta Kultur Langilearen Euskal Estatutua eratzen hasteko



DANI BLANCO

ponentzia. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin izan dituzten bileretan Artistaren Estatutuaren gaia atera izan dela aipatu du, eta esaterako, dagoeneko abokatu bulego bati zerga-sistemari buruzko neurriak EAEn nola aplikatu aztertzeke eskatu ziotela adierazi zutela Kultura Sailetik. Diputatuen Kongresuan onartutako bide-orria EAEn ezartzeko hurrengo pausoetako bat litzateke hori. “Harri eta zur” daudela dio Olasagastik, Artistaren Estatutua eragileekin batera arakatzeari atea itxi zaiolako. Haien haserrea Kultura Sailari helarazi diote, gaiari buruzko bilera bat egiteko ere eskatu dute: “Ondo entzun dezatela haserre gaudela”.

Dehesak ere sentsazio mingotsarekin jarraitu zuen Legebiltzarreko eztabaida. Prozesuan gardentasuna behar dela azpimarratu du, eta gaia ikuspuntu kultural eta tekniko batetik beharrean ikuspuntu politiko batetik landu zela.

AURRERA BEGIRA

EAeri dagokionez, beraz, pilota gobernuen teiltuetan dago oro har. Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, aldiz, ikusi beharko da zein izango den parlamentuan eratutako ponentziak jarraituko duen bidea. Kultur langileek modu duinagoan lan egin eta bizi ahal izateko beharrezko neurriak, ordeak, presazkoak eta ezinbestekoak dira oraindik. Euren ahotsa entzun dezaten aldarrikatzen jarraitzen dute eragileek, eta askotarikoa den sektore batean indarra hartzen ari dira EAB eta Teknikariok gisako sindikatuak. Haien artean eta instituzioekin lan egiteko espazioak behar dituzte ordeak, aurrera begira hartuko diren neurriak benetan eraginkorrak eta egokiak izan daitezen, eta ez kultur langileen errealitatea kontuan izan gabe hartutakoak. ●



“ ”

“Parisko teknokraziaren parean, demokraziaren eta lurraldeen garaipena da lege hau”

Diputatu bretoi hau dugu euskarari eta orokorki Frantziaren menpe ditugun hizkuntza gutxituei onura handiak ekarriko dizkien legearen oinarrian. “Historikotzat” jo dute askok 2021eko apirilaren 8an Frantziako Legebiltzarrak alde bozkatu izana, kontra bozkatzeko gobernuak eman manuari bizkarra erakutsiz gainera. “Errepublikaren hizkuntza frantsesa da” errepikatzen dabilen jakobinismoan arrakala historikoa da, duda gabe.

Xanpain botila ireki zuten askok eskubide berri hauen ospatzeko.

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Euskal Herrian momentu historiko eta garaipen gisa bizitu dugu hizkuntza gutxituen aldeko legearen bozketa. Britainian nolako harrera ukan du?

Gisa berekoa: zoriontzeko ehunka mezu jaso nituen eta bi gaitzespen mezu bakarrik. Frantziak aspaldian ditu problemak bere baitako aniztasuna eta tokiko hizkuntzak eta kulturak onartzeko: asimilazio eredu batean da, “zarena ahanzi eta beste bat bilakatu zaitez; aldatu hizkuntzaz eta kulturaz, eta agian bilakatuko zara norbait interesgarri”. Tokiko hizkuntzei buruzko lege bat izan zen 1951n –Deixonne Legea– eta honen arabera, tokiko hizkuntzen irakaspena bideratzen ahal zen baldin eta frantsesa ikasteko balio bazuen... erabat gaiez kanpo zihoan kontua. Nonbait, lege hau dugu tokiko hizkuntzen alde doan lehena. Jakin behar da Frantziak ez duela gutxien-

gorik onartzen –ez eta ere gutxiengo linguistikorik–. Denak “parekideak” garela dio Frantziak, baina noski hori gezurra da, denentzat ez du balio parekidetasunak, batzuk besteak baino parekideago daude –demagun, batzuen kultura eta hizkuntza da eskolan irakatsia–. Hori perbertsoa da, erran nahi duelako frantses herritar izatea frantses hizkuntzako eta kulturakoa izatea dela; Errepublikaren nozioaren etnizazio batean gara, ideal errepublikarraren perbertsio batean gara, berez errepublikar izatea eskubide politikoak ukatean datzalako, eta hiritartasuna horretan datza. Ikuspegi honetatik atera behar du Frantziak, lekuko hizkuntzen desagerpena dakarrelako axolarik gabeko postura honek.

Zuk nola atxikitzen duzu gogoan bozketa hau?

Parisko teknokraziaren parean demo-

kraziaren eta lurraldeen garaipen gisa oroitzen dut bozketa. Oraindik aitzina gauzatu beharko dugu, legea biziarazi beharko dugu eta aztertu beharko dugu nola baliatu dezakegun beti ere urrunago joateko.

Gobernuak kontra bozkatzea galdetu arren, diputatuek alde egin dute. Aitzinetik pedagogia handiz egin izan duzuen aurkezpen eta azalpen lanaren emaitza dugu bozketa.

Bozketa argia da, 247 dira alde agertu eta 76 aurka. Uste dut hastapen batean elkarreke ere ez zutela sinesten legea pasatzearen aukeran: iazko otsaileko lehen irakurketan zati baten alde egin zuen Legebiltzarrak –irakaskuntzari buruzko artikulua baztertuz–, baina ikustearekin iazko abenduan Senatuak testuari berriz gehitzen zizkiola irakaskuntzari buruzkoak, orduan ikusi zuten eginga-



Paul Molac

Diputatu eta
hizkuntza gutxituen
aldeko legearen egilea

FRANTZIAKO LEGEBILTZARRA

rritasuna. Itxaropentsu, azkarki mobili-zatu dira denetan –Breitainian, Alsazian, Okzitainian, Euskal Herrian, Korsikan, Katalunian, baita Pikardian ere–. Tokian toki, diputatuen ikustera joan dira, legea aurkezteko eta murgiltze ereduazaltzeko. Eskerrak eskualdeetako diputatuek honen berri badutela, nahiz eta kontzientzia ukatea besterik den... Parisko diputatu batzuk ez dute sekula murgiltze ereduaz ibilitako umerik gurutzatu eta mesfidantzaz begiratzen zaituzte: “Nola da posible? Frantsesa ez dute menperatuko!”. Oharra entzun eta azaltze lanari lotzen zara. Legebiltzarrean ere aritu naiz azalpen lanetan; esplikazio gose zirenei erantzuten aritu naiz eta banan-banan talde politiko guztien ikustera joan naiz. Diputatu bretoiak ere lan handia egin dute, legearen alde bozkatzearen beharraz aritu dira haien talde politikoetan. Andana bat

gara bretoiak, 30 bat eta bizpahiru izan ezik, denok egon gara bozketan, denok alde bozkatzuz. Lekuan leku denok aktibatu gara, eta horrek egin du legea pasa dela.

Nola esplikatzen duzu gobernuak aurka bozkatzeari galdetu arren diputatuek manua ez segitu izana, baita gobernuaren alderdikoek ere?

Sinpleki, erran nezake ulertu dutela filosofoek definitu bezala bi botere daukela, bata legegilea eta bestea exekutiboa eta biak bereizirik direla. Haien lurraldearen alde bozkatu dute, tokiko hizkuntzen alde eta Estatuaren makinaren kontra. Beraien buruaren nagusi egin dira.

Elkarteek burutu lana eskertu duzu. *Pour que vivent nos langues* edo “Gure hizkuntzak bizi daitezen”

kolektiboaren oinarrian ere zara. Hizkuntza gutxituen irakaspenaren alde dabil kolektibo hau eta eskualdeetako 40 bat egitura batzen ditu. Honek ere izan du eragina.

Duda gabe. Irakaskuntza publikoa, pribatu katolikoa eta elkarte mundukoa federatzea lortu dugu, eta eskualdeetako elkarteak ere elkartu gara. Informazio zuzena une egokian pasarazteko bidea izan da, leku guztietatik mezu bera helarazteko gisan: Senatuaren bozketa eta gero diputatuei galdetu zaie legea bere horretan bozkatzeari, behingoan promulgatua izateko gisan. Senatuak irakas-kuntzari buruz gehituriko lau artikuluek eztabaidatu genuen apirilaren 8an. Testua bere horretan bozkatzeko manua pasarazia genuen guk, hitzez hitz bere horretan ez bazen bozkatzeko berriz ere Senatura zihoalako, joan-jinka urteak pasatzeko arriskuarekin.

Nola esplikatzen duzu gobernuaren postura, beste behin jabobinismoan tinko gelditze hori?

Ez nau harritzen. Zenbat dira onurak ekarri dizkiguten ministroak? Jack Lang, François Bayrou... eta zerrenda gutxi gorabehera horretan gelditzen da. Beste guztiek urrunetik begiratzen diote gureari, "lekuko hizkuntza irakatsi dezakegu baina ez sobera, frantsesaren maila apaldu dezakeelako" ideari loturik dira denak. Alta uste hau ez da sekula frogatua izan; alderantziz, haur elebidunek frantses maila hobea dutela agertzen zaigu ebaluaketetan. Baina betikoa: Parisko goi-funtzionarioaren irudimenean hizkuntza batek bestea ordezkatzen du. Nahiz eta psikolinguista guztiek eleantzasuna goraipatu, Hezkuntza Nazionalaren Ministerioak berean segitzen du: Errepublikaren hizkuntza frantsesa da eta kito. Horri gehitu behar zaizkio betiko gibel-usteak, hala nola, Blanquer Hezkuntza ministroak separatistatzat jo izana hizkuntza gutxituen aldekoak. Hori ez zaie gustatu diputatuei.

Irain gisa hartu dute?

Ñabardura falta gisa. Postura dogmatikoa eta politikoa izan da gobernuarena, ez eta pedagogikoa eta hizkuntzen irakaspenari loturikoa.

Tokiko hizkuntzan bideratu murgiltze eredia eskaintzen ahalko da eskola publikoan ere.

Nahiko errazki irudika dezakegu eskaerei ezetza bideratuko diela errektoretzak... Eskaera eta eskubidea izan arren, paretik jaso errefusen adibideak ez ditugu eskas, sail elebidunean adibidez.

Bai, pentsa daiteke ez digutela legearen gauzapena hain errazki utziko, eta tirabirak izanen ditugula oraindik ere. Baina ageriko da zer erabakiko duen juleak... legegilearen nahia ere badagoelako orain oinarrian; ez dut uste Hezkuntza Nazionalak zelai horretan jokatu nahiko duenik. Baina badakizu, lege bat ez da uda-

“ ”

*Denak parekideak
garela dio Frantziak.
Noski gezurra da,
batzuk besteak baino
parekideago daude*

berria dakarren ainara... herritarrek ez badute haien eskuetan hartzen, segidarik gabea izateko arriskua ere hor dago. Dena dela, ez naiz jurista baina lege honetan arras argiki agertzen zaigu ondokoa: gure ondarean ditugu hizkuntza gutxiak eta frantsesarekin batera hauen irakaspena bideratzeko pedadogia hoberena bideratu beharko du Frantziak.

Legea antikonstituzionala dela erran izan du gobernuak.

Kontseilu Konstituzionala arras argia izan da: tokiko hizkuntzara ezin da behartu. Lege honekin horretan gaude, aukera ematen dugulako, hots, ez dugu behartzen. Ni ere ez naiz behartzearen aldekoa: hasi gaitezen irakaskuntza tokiko hizkuntzan jaso nahi duten guztien eskaerari erantzuten eta ondotik mahai gaineratuko dugu horretara behartzearen gaia; orduan beste lege bat eta beste eztabaida bat izanen dugu. Funtsean, ez dut iritzi argirik horri buruz, diodan gauza bakarra zera da: marrazkia eta musika klasean irakatsiak dira eta horri esker batzuk deskubritzen dituzte musika eta marrazkia, eta bai, behartuak dira. Gisa berean, tokiko hizkuntzen irakaspena ere behartu daitekeela pentsa daiteke. Baina horretaz hitz egin behar genuke, biztanleriak ados izan beharko luke, ezingo delako modu autoritarioan bideratu. Anartean, lege honekin ondokoa lortu dugu: irakaskuntza lekuko hizkuntzan nahi duen orok ukan behar du aukera.

Hari horri tiraka, ofizialtasuna ere aipatu nahi nuke. Quebec eta Hego Euskal Herria adibidetzat dituzu usu. Kontua da ofizialtasuna dutela bertako gutiengo hizkuntzek. Irudika dezakegu Frantzia bere menpe dituen ofizialtasuna aitortzen?

Bistan da! Beste lekuetan lortu badute, hemen ere lortu dezakegu, frantsesak ez dira besteak baino okerrago ala ton-toago. Haatik, egia da Frantziak beranta handia duela. Frantziar Iraultzatik dator hori, herri hau anitz markatu zuen eta bi mende pasa arren oraindik badu eragina. Baina, hori ere aldatuz doa, eta erran nezake La France Insoumise alderdia dugula bakarrik 1793an blokeaturik! Beraz lortu dezakegula uste badute ere, erran nezake tokiko hizkuntzak ikastetxeetan orokorturik eta karrikan egunerokoan mintzatuak izanen direnean dugula ofizialtasuna lortuko. Tokiko hizkuntzak biziko garenean, ahalkerik gabe, orduan bai lortuko dugu. Desdramatizatu behar dugu kontua, zeren aurrekoan berriz "nik ez dut ulertzen!" erraten zidan batek. Eta zer? Larri da? Euskal Herrian naizenean eta ingurukoak euskaraz ari direnean ez nau trabatzen, alderantziz. Aski harrigarria da Frantziaren jendeak pentsatzea gurean mintzo garenean haien kontra ari garela! Zinez, nik zerbait erran behar badiot norbaiti, edo





FRANTZIAKO LEGEBILTZARRA

ulertzen duen hizkuntzan bideratuko natzaio edo isilduko naiz.

Irakaskuntzarena ezinbesteko esparrua da. Hala ere, ikasgelako lau pareten artean erabilia den hizkuntzak geroa ez dauka segurtaturik. Zer egin hizkuntza hauek herriko plazan ere erabiliak izan daitezen?

Tokiko kolektibitateen esku ere da. Hauek garatu ditzakete adibidez euskaraz bideraturiko aisialdi zentroak zein errugbi entrenamenduak. Baina denbora berean, hortaratu ahal izateko hizkuntzak erabilia izan behar du. Britainian %7 da elebidunean baina %40ak nahi du bretoierazko irakaskuntza, eta segur naiz proposatuz gero ia guztiek hartuko luketela! Bretoiera %80ak ikasiko duenean orduan indar-harremana bestelakoa izanen dugu. Begira, Ipar Euskal Herrian %40ak du euskara ikasten... maleruski, ez da oraindik nahikoa, baina bide onean zarete.

Diozuna da lekuko instituzioen esku ere dela hizkuntzarena. Hots,

Konstituzioaren 2. artikuluari so egon beharrean, lekuan leku garatu ditzakegula hizkuntza politika ausartak.

Noski baietz. Gaur egungo agintari gehienak elebakarrak dira, elebakartasunaren biberoian haziak izan dira, eta batez ere errana izan zitzairen haien hizkuntza ahortzi behar zutela. Iraultza kulturala

“ ”

Tokian toki, diputatuen ikustera joan dira elkarteak, legea eta murgiltze eredua aurkezteko

ere da nonbait hauentzat. Mentalitateak aldatu behar dira, baina hori elebidunen eskutik etorriko da, elebiduntasun orokatu batean izanen garenean. Hemendik urte batzuetara elebidunak dira egonen aulki hauetan, eta ikusiko duzu ezpiritua

eta giroa erabat ezberdinak izanen direla.

Hizkuntza bat komunikazio tresna bat baino askoz gehiago da, mundua irakurtzeko era bat da, munduan kokatzeko postura bat da, iruditegi bat da... Frantziako eskola publikoa ez litzateke hauen transmititzeko gunea. Agian horretan dute haien zentzu guztia ikastola eta zuen kasuan diwan eskolek...

Bietan bideragarria dela uste dut. Bada-kizu, eskola publikoko irakasle bati mintzo zara. [irria]. Historia irakasle gisa beti abiatu izan naiz Britainiako erreallitateetik. Frantses Iraultzaz aritzerakoan gure udalek edota apaizek Legebiltzarrra bidalitako gutunetan oinarritzen nintzen, ez nintzen Parisko dokumentuetatik abiatzen. Hizkuntza baino harago doan kontua dugu hau, gureaz daukagun kontzientzia ari gara eta hizkuntza horren parte izanda ere, ez da osagai bakarra. Badakit “euskaldun” “euskara duena” dela, baina gurean bretoiera mintzo ez duena bretoia izan daiteke, adibidez ekialdekoek galo hizkuntza mintzo dute eta bretoiak dira berdin. ●

HIZKUNTZA GUTXITUEN ALDEKO LEGEA, FRANTZIAKO ESTATUAN

Babes legegegilea euskaraz ikasi nahi duen haurrari

Mugarri izango den legea sartu da Frantziako Hezkuntza Kodean. Tokiko hizkuntzetako irakaskuntzaren orokortzea eta murgiltze eredua eskola publikoetan bideratzea lortu ahalko da. Tokiko hizkuntzan herrian eskolatzeko aukerarik ez badago, gertueneko eskolara doazen umeen kasuan ondoko ikastetxea edo udala diruztatu beharko du udalak. Tokiko hizkuntzan ikastea eskubidea da; ez gutizia.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  KEPA ETCHANDY

Arrakala esanguratsua ireki da Frantziako Estatuan. Porrota gobernuakideentzat, haustura moduko bat jazo delako; eta garaipena, berriz, bide luzeko borrokan diharduten xinaurri guztientzat. Jean-Michel Blanquer Hezkuntza ministroaren borondatearen kontra, lege berria onartu zuen apirilaren 8an Legebiltzarrak: hizkuntza gutxituen irakaskuntzak esparru finkoa izango du eskola publikoetan. Hezkuntza Kodean sartuko da. Behin indarrean jarrita, Ipar Euskal Herriko eskola publiko orok euskarazko eskaintza prestatu eta proposatu beharko du. Halakorik ez da sekula ezagutu.

“Denbora eta lana eskatuko du, baina zinez, biziki berri ona da euskalgintzako eragileontzat”, adierazi du Marie-Andrée Ouretek, Biga Bai irakaskuntza publikoko adar elebidunetako gurasoen elkar-teko lehendakariak. Ustekabean etorri dela dio, eta hala uste du Ikas Bi guraso-elkarteko Céline Etxebarnek ere, ez baitzuten uste, hastapenean bederen, talde parlamentario txiki batek bultzatutako eta lehen irakurketan Frantziako Legebiltzarrak osagaiez husturiko lege-proposamen hura bere osotasunean

noizbait onartuko zenik, agintean den La République En Marche alderdia sutsuki aurka egonda.

1951tik ez da tokiko hizkuntzen irakaspeneri dagokion legerik onartu. Hamarnaka lege-proposamen egin arren, hemizikloan eztabaidatu eta atzera bota dira kasurik onenean; beste asko, horra ere ez dira iritsi. “Guretzat, horregatik, bozka historikoa da”, adierazi du Euskal Konfederazioko Sébastien Castet elehunak. Onartu berri den legea, lehenbizikoz, 2019ko abenduan heldu zen Legebiltzarrerara, Paul Molac diputatu bretoiaren eskutik. Lehen irakurketan, irakaskuntzari zegozkion oinarriak baztertu eta gainontzekoa onartu zuten diputatuek, baina geratu zen hura, Caste-ten ustez, “arrunt apala” zen.

Bigarren ganbarara heldu zen lege-proposamena, eta senatariek, diputatuen borondatearen aurka, alboratutako artikulua berriz sartzearabaki eta bere osotasunean onartutzat eman zuten. Euskal Konfederazioa eta Seaska, besteak beste, *Pour que vivent nos langues* kolektiboan murgilduta daude beste tokiko hizkuntzetako eragileekin batera, eta kolektibo honek hartu zuen

ardura hemizikloko diputatu, alderdi eta hizkuntza eta hezkuntza arloko eragileekin elkartu eta lege honen garrantzia azaltzeko. Azkenean, bide honetan, Molac diputatuaren lege-proposamenaren artikulua guztiak ontzat eman ditu Legebiltzarrak; La République En Marcheko diputatuen artean, erdiak baino gehiagok ez du segitu Hezkuntza ministroaren eta gobernuaren iritzia.

OROKORTUA ETA MURGILDUA

Ez da hautu erraza haurrak euskaraz eskolaratzea Ipar Euskal Herrian. Seaskaz gain, bada aukera eskola publikoan euskaraz hutsez ikasteko eta, den konplexurako, badu arrakasta elkarriketatuek adierazi dutenez –20 eskola inguruk eskaintzen dute egun Ipar Euskal Herrian–. Konplexua da, orain arte esperimentazio gisa bideratzen delako euskarazko murgiltze eredua eskola publikoetan. Bestela, tokiko hizkuntzan irakatsi ahal izateko, edo aparteko ikasgai bezala irakasten da, edo sail elebiduna behar da izan –alegia, denbora erdi frantsesez eta denbora erdi euskaraz–. Esperimentaziorako, bost urteko proposamena prestatu eta aurkeztu behar izaten dute eta hori osatzeak lan



-karga biziki gogorra eskatzen duela dio Ouretek, “traba anitz” ezartzen dizkietelako: “Gurasoak bildu behar dira, inkestak egin, baimenak eskatu, dossier eta txosten luzeak osatu, ministerioarekin elkartu...”. Oztopo hauek arindu beharko lituzke lege berriak; Hiriburun (Lapurdi) ikasturte hasieran gertatutakoa ez litzateke errepikatuko.

Euskararen irakaskuntzaren orokortzea izango da berritasun nagusia. Eskararen baitako politika izatetik, legeak eskaintzaren baitako politika batera pasatzea ahalbidetu dezakeela adierazi du Castetek: “Hemendik goiti, eskola publikoak behartuak izanen dira euskararen edo euskarazko irakaskuntzaren eredu bat proposatzera. Gurasoek proposatu beharrean, eskolak berak proposatuko du. Ikasle guztiei eskaintzen zaie eta, bistan da, gurasoek halakorik ez badute nahi, adierazi egin beharko dute; ez alderantziz”.

Korsika da lehendik eredu hau martxan duen lurraldea. Beraz, legea indarrean jartzen denetik, Frantziako Estatu osoko eremu jakin bakoitzean, tokiko hizkuntzan ikasteko aukera egongo da. Gaur egun, haurren %40ak ikasten du euskaraz, publikoan, Seaskan edo pribatu-katolikoan. Etxebarne, gainontzeko elkarrizketatuak bezala, oso baikor azaldu da, “biziki urrats handia” dela eta “murgiltze-sisteman garatzeko parada” ematen duela esanez.

Zuzenki eskola publikoei eragiten dien legea denez, Seaskako ikastolei ez die aldaketa nabarmenik ekarriko. Murgiltze-sistema aspaldidanik zeukaten ezarria, baina lege honek zilegitasuna ematen die beraien jardunari. Peio Jorajuria lehendakariak adierazi du “babes sinboliko handia” dela Seaskarentzat: “Potentzial handia duen legea da eta oso pozik gaude. Azken urte honetan Parisen izan gara maiz, izan ere, *Pour que vivent nos langues* kolektiboaren bidez, anitz parte hartu dugu lege honen erakuntzan”.

IRAULTZA EGITEAREN KEZKA

Legea onartuta ere praktikan jarri behar dira neurriak. Hezkuntza sistema ez da egunetik biharamunera aldatzen, Etxebarne adierazi duen bezala. “Guk, Euskal Konfederazioan, errekurso aukerak direla eta, baikor segitzen dugu”, adierazi du Castetek. Edozein parlamentariak jar dezake errekurtsua konstituzioaren aurkakoa dela argudiatuz eta epea zabalik da oraindik. “Antikonstituzionala dela, behintzat, ezin digute esan ene usiez: onartutakoa dagoeneko praktikan egiten da Korsikan”.

Kezka pizten dietena legearen eskutik etor daitezkeen dekretu, zirkular eta araudiak dira. Blanquer ministroak du eskumena, legearen barnean, dekretuok diseinatu eta indarrean jartzeko, eta ez

dira askorik fio gobernuaz. Ez behintzat Ourret: “Frantses gobernuak beharko du bere jarrera doi bat aldatu, baina ongi ezagutzen dugu administrazioa eta bali-tuzke mila manera oztopoak ezartzeko”.

Jorajuriak dio, berriz, bozketarako konbentzitzea lortu duten arren, murgiltze-ereduak ematen diola erreparoa handiena: “Hizkuntza eta kultura minorizatuak irakastearen aldekoak badira, baina ez, horrenbeste, murgiltzearen aldekoak. Mugatzea izan du beti xedea Frantziak historikoki eta lege hau, lortu duguna, hori baino aurrerago doa”. Guztiek argi dutena da “hurbiletik” jarraitu beharko dituztela administrazioaren mugimenduak.

Urte guztietan zehar eta, batez ere, *Pour que vivent nos langues* kolektiboak azken urtean egindako lan eta borrokari esker heldu da legea; lau elkarrizketatuek azpimarratu dute antolakuntzaren garrantzia. Argi diote, harrotasunez, Legebiltzarrak onartutako legea “iraultza handia” izan dela, “historikoa” delako hezkuntza eredu. “Haizea alde dugula, behingoagatik, aprobetxatu beharko dugu”, esan du Castetek.

Irakaskuntzaren esparruaz gain, bestelako eskubideak ere bideratzen ditu legeak. Besteak beste, seinaletika publiko elebidunaren arautzea eta estatu zibil-leko dokumentuetan ñ-a bezalako zeinu diakritikoak idazteko aukera. ●

“Ez dugu kutsatutako pertsona identifikatzea bilatzen, baizik eta nor den kutsatzeko gai”

Boris Revollo Barriga

Bartzelonako kontzertu esperimentalaren ikerketaburuetako bat



BORIS REVOLLO BARRIGA

Gaixotasun infektzioetan doktorea da, hiesan espezializatua.

ANA GALARRAGA Aiestaran / **elhuyar** ALDIZKARIA

FLS-SCIENCE

Martxoaren 27an kontzertu esperimental bat egin zen Bartzelonako Palau Sant Jordi aretoan, Germans Trias i Pujol Ospitale Unibertsitarioko ikertzaileen gidaritzapean, eta Primavera Soundek eta musika-festibalen beste sustatzaile batzuek antolatuta. Kontzertura sartzeko, ikus-entzuleek egun berean negatibo eman behar zuten antígeno-testan, eta, behin barruan, ez zuten haien artean distantziarik gorde beharrik. Beste prebentzio-neurri batzuk zeuden, hala ere: FFP2 maskara jantzita eraman behar zuten, aireztapena eta pilaketak gerta zitezkeen lekuak kontrolpean zeuden... Era horretako jarduerak seguruak direla frogatzea zen esperimentuaren helburua.

Egitasmoak kritikak jaso ditu, arriskutsuegia delakoan. Ikertzaileek, baina, segurua dela baieztatu dute. Haietako bat da Boris Revollo Barriga, gaixotasun infektzioetan doktorea, hiesan espezializatua.

Zer dela eta egin duzue esperimentu hau?

Gure ustez, pandemia gainditzeko estrategia asko erabili behar dira, txertaketa ez da nahikoa. Txertoak, seguru asko, birusa kontrolatzeko tresnarik garrantzitsuenak dira, baina, horrekin batera, oso baliagarria da jendea testatzea eta birusa transmititu dezaketen pertsonak diagnostikatzea. Hain zuzen, pertsona kutsakorrek identifikatzeko erreminta erraz bat baldin badaukagu, birusaren transmisio-katea eteteko aukera izango dugu.

Antígeno-testek sentikortasun handia dute pertsona infektzioak detektatzeko. Guk hori frogatu nahi genuen Apolo aretoan joan den abenduan egin genuen azterketan. Azterketa hura zorrotzasun zientifiko osoz egin genuen. Azterketa randomizatua zen. Mila boluntario bildu genituen, denei antígeno-testa egin genien kontzertuaren egun berean, eta berehala jaso genituen emaitzak. Paraleloan, PCR edo TMA egin genien.

Nolako proba da TMA?

Zertarako baliatu zenuten?

PCRa bezala, birusaren genomaren anpli-

fikazioan oinarritzen da, eta haren abantaila da automatizatu daitekeela eta lagin asko azter ditzakeela aldi berean. Horren bidez, test asko egin ahal izan genituen, denbora gutxian, hau da, 24 orduetan.

Antígeno-testan negatibo eman zutenak bi taldetan banatu genituen, ausaz. Erdiak kontzertura sartu ziren, eta beste erdiak kontrol-taldea osatu zuen. Zortzi egun geroago, PCR bana egin genien parte-hartzaile guztiei. Ez genuen antígeno-testa egin, birusa ba ote zuten ala ez jakin nahi genuelako, ez kutsakorrek ote ziren. Eta ikusi genuen ez zela infektatu bakar bat ere egon kontzertura sartu zirenen artean; aldiz, bi infektatu detektatu genituen kontrolean.

Azterketa estatistikoki bayesiar bat egin genuen, aintzat hartuta birusaren zirkulazioa garai hartan Katalunian, eta bi taldeetako intzidentziak. Emaitza izan zen ez zegoela diferentzia estatistikoki esanguratsurik bien artean. Hortaz, ondorioztatu genuen, hartu genituen segurtasun-neurri guztiekin (antígeno-testa egitea sartzean, FFP2 maskara eramatea, diskotekako airea berritzea eta pilaketak eragozteko konunetan eta erretzeko lekuan), ez zegoela kutsatzeko arrisku handiagorik diskoteka batean distantzia sozialik gabe, kanpoan egonda baino. Horrenbestez, frogatu genuen orain arte gertakari oso arriskutsutzat jotzen zena (kontzertu bat barruan, distantzia sozialik gabe) segurua izan daitekeela, neurri jakin batzuk hartuz gero.

Palau Sant Jordin ere berdina egin duzue?

Hori da; Apolo aretoan egindakoa, 5.000 pertsonara eraman dugu. 5.000 pertsona horiek negatibo eman dute antigeno-test batean, maskara FFP2 eraman dute, aireztatzen kontrolatu dugu, eta pilaketak ez sortzea zaindu dugu komunetan eta barretan. Orain, jakinarazitako kasuei jarraipena egingo diegu, 7. eta 14. egunetan. Apolo aretoko ikerketan oinarrituta, ez dugu uste Bartzelonan dagoen intzidentzia baino handiagoa izango denik kontzertuaren parte-hartzaileen artean.

Antigeno-testak hain fidagarriak dira?

Birusa detektatzeko sentikortasuna CT-kopuruen arabera da. CTa [cycle threshold] da PCR batean zenbat ziklo behar diren birusaren RNA anplifikatzeko, detektagarria izan dadin. CTa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta birus gutxiago dago. Germans Trias i Pujol Ospitale Unibertsitarioko Oriol Mitjáren taldeak egindako ikerketa batek frogatu zuen antigeno-testek %99ko sentikortasuna dutela 25 baino txikiagoko CTa duten pertsona guztiak detektatzeko.

Horrez gain, eta hau oso garrantzitsua da, ez da hazkuntzarik ikusi zelula-kultiboetan 30 baino handiagoko CTa dutenetan.

Izan ere, bereizi behar da birusa detektatzeko sentikortasuna eta birus kutsakorria detektatzeko sentikortasuna. Eta guri bigarren hau interesatzen zaigu. Ez dugu kutsatutako pertsona identifikatzea bi-

latzen, baizik eta nor den kutsatzeko gai.

Hortaz, Apolo aretoaren ikerketan, PCRen emaitzak jaso genituenean, ikusi genuen antigeno-testan negatibo eman zuten 24 pertsonak positibo eman zutela PCRan. Eta kontzertura sartu ziren. Birusen kultiboa egin genuen, eta bat bera ere ez zen hazi. Eta AEBetan eta beste leku batzuetan egiten ari diren ikerketetan ere emaitza berberak izaten ari dira.

Kontzertuetarako ez ezik, ezingo lirateke erabili antigeno-testak beste leku itxi batzuk segurua bihurtzeko, hala nola hezkuntza-zentroak edo lantokiak?

Hori aztertu egin beharko litzateke. Orain ikerketa bat egiten hasi gara eskola batean, 14 urteko gaztetxoekin. Haiekin hitz egin dugu, eta beren eguneroko errealtatean oinarritu gara ikerketa diseinatzeko. Hala, autotest nasalak egingo dituzte, astean behin, irakaslearen aurrean.

Michael Mina Harvardeko epidemiologoak gutun bat argitaratu zuen *Time* aldizkarian, non gure estrategia beraren alde egiten duen: testatu-testatu-testatu eta txertatu-txertatu-txertatu. Funtsezkoena da ulertzea antigeno-test bat egiten baduzu, egun berean 24 ordu inguru dituzu esateko, segurtasun handiz, ez duzula birusa kutsatuko. Ez duzu jakingo baduzun ala ez; jakin dezakezuna da, baldin baduzu ere, ez duzula kutsatuko. Unearen argazki bat da, eta ondo jakin behar da zer esan nahi duen.

Oraingoz, estrategia ikaragarri garestia da. Egin kontu: Apoloko esperimendua

milioi erdi euro inguru kostatu zen; paraleloan PCRak egin behar izan genituelako, handik astebetera berriro deitu denei beste bat egiteko... Hau frogatzea oso da garestia. Horrenbestez, lortu beharko genuke agintariekin testak egiteko puntuak adostea, hirietan hainbat lekutan egin ahal izateko.

Jendeak izan dezala diagnostikatzeko aukera, jakiteko nork duen kutsatzeko arriskua. Adibidez, testa erosi, eta bideo baten bidez jasotzea autotest bat egiteko jarraibideak. Alemanian, esaterako, supermerkatuetan saltzen dituzte. Ez bagara test-test-test egiten hasten, itxaron beharko dugu ea talde-immunitatea lortzen dugun txertoen bidez, jakin gabe noiz gertatuko den hori, txertoei ihes egiten dieten aldaerak sortuko ote diren... Eta bitartean, etxean sartuta geratu beharko gara. Ez dago irtenbiderik. Pentsatu behar dugu zer irtenbide dugun, hau luzatuko balitz ere.

Zure ustez, agintariekin horrelako estrategia baten alde egingo dute?

Ez badute egiten, beste urtebete katas-trofiko bat izango dugu. Niri gaueko giroa eta kontzertuak ez zaizkit bereziki gustatzen, baina uste dut bide bat dela erakusteko estrategia hau baliagarria dela kulturaren industria sustatzeko. Beste leku itxi eta kontrolatuetara ere zabal daiteke, eta, gainera, lagungarria izango da izurria kontrolatzeko. Izan ere, sintomarik gabeko pertsonak detektatzeko balio du, eta haiek dira, hain justu, gehien kutsatzeko arriskua dutenak. ●

DISTANTZIAK GORDE GABEKO KONTZERTU ESPERIMENTALA.

Love of Lesbian taldeak jo zuen martxoaren 27an Bartzelonako Palau Sant Jordi aretoan 5.000 lagunen aurrean.

PANDEMIAK ETENDAKO GAZTAROA

BELAUNALDI BATEN BURU OSASUNA KOLOKAN

Antsietatea, depresioa, larritasuna, ezintasuna... Ez da oso ohikoa gazteen ahotan hitzok entzutea. Ez zen, orain gutxi arte. COVID-19aren pandemiak haien bizitzak eta harremanak kolpetik eten ditu. Baita etorkizuna are gehiago lausotu ere. Arrazoi eta ondorioetan arakatzen ahalegindu gara, hainbat gazte eta adituk esandakoak oinarri hartuta.

 **OIHANE ARRETXEA**

Urtebete baino gehiago igaro da COVID-19aren pandemia hasi zenetik, eta badirudi osasun-krisialdia eta krisi ekonomikoa ekartzeaz gain, beste arrasto bat ere uzten ari dela, hain zuzen ere, osasun mentalean. Krisialdi egoerak gizarte osoan izan ditu eraginak, estresa, larritasun sentimendua eta antsietatea bezalakoak areagotu egin dira, baita nekea eta tristura sentimenduak ere.

Azken urte honetan, buruko osasunaren inguruan egindako ikerketek mahai gainean jarri dituzte pandemiaren ondorio psikologikoak, eta gazte eta nerabeen inguruko datuak nabarmendu dira bereziki. Espainiako Ikerketa Soziologikorako Zentroak (CIS), pandemia garaian espainiarren osasun mentalari buruzko inkestaren txostena argitaratu zuen otsailean. Dioenez, 18-34 urte bitarteko gazteak –emakumeekin eta klase baxuko pertsonekin batera– izan dira pandemiak sortutako nekea gehien jasan dutenak. 18 eta 24 urte bitarteko hamar gaztetatik hiruk adierazi dute antsietate-krisiak jasan dituztela pandemia hasi zenetik, eta lautik batek oso triste edo deprimituta sentitzen dela. Halaber, talde horretako %18ak “beldur handia” sentitu du.

Ez baita gozoa testuingura. Lehen ohikoak ziren esperientziak, hala nola, eskolara joatea, lagunekin irtetea, zi-

nemara joatea, kirola praktikatzea, ibilaldiak edo txangoak egitea... mugatu egin dira, ahalik eta harreman fisiko txikiena izatea eragin duen osasun-larrialdiaren ondorioz.

Antsietatea, depresioa, loaren eta elikaduraren nahasmenduak, segurtasun eza, estresa, tristura, ezintasuna, kontzentrazioa galtzea, beldurra, neke emozionala, larritasun eta akidura sententzia, autoestimua baxua, suminkortasuna, umore-aldaketa bortitzak... izan dira gazteen artean identifikatutako sintomak. Izan ere, pandemiak buru osasuna eta oreka emozionala zaltzen jarri ditu, eta hala baieztatzen dute datuek.

“BIZITZAKO UNERIK ONENAK BADOAZELA IKUSTEAK LARRITASUNA SORTZEN DIGU”

Datu horiek abiapuntutzat hartuta, lau gazterekin elkartu gara haien bizipenak ezagutu eta hobeto ulertzeko. Aho batez esan digute pandemiaren eragin nagusia “nekea” dela, zentzu guztietan, “nekatuta” baitaude orokorrean: “Emozionalki bizirauten ari gara, benetan bizitzen egon beharrean”. Zentzu horretan, “apatia” izan da solasaldian gehien errepikatu den kontzeptuetako bat. Arrazoi argirik gabe, “akiturik, ezer egiteko gogorik gabe eta hutsik” sentitzen direla azaldu dute.

Sarritan entzun dute gaztaroa bizitzako unerik onenetakoa dela eta disfrutatu beharra dagoela. Egoera honek ordea, ohikoak diren esperientzia eta bizipenak mugatu egin ditu. Denbora aurrera doala eta bizitzako unerik “onenak” pasatzen ari direla pentsatzeak “larritasuna” sortzen die: bizitzaz ezin kontrolatzea, askatasun falta, gauzak aurretiaz planifikatzeko aukerarik eza...

Bereziki uda amaitu eta ikasturte hasierarekin lotzen dute neke sententzia. “Errutinara itzultzea kolpe gogorra izan zen: protokoloetara ohitzea, harremanak mugatzea, ikasketak jarraitzea...”. Motibazio eta ilusio falta identifikatu dituzte arlo honetan eta horrek errudun eta gaizki sentiarazten ditu aldi berean. “Gure egunerokoa guztiz aldatzea eskatu digute, baina aldi berean funtzionalak izan behar gara: itzali emozio eta sentimenduak eta funtzionatzera”.

Nabarmen aldatu den espazioetako bat hezkuntza izan da, maila guztietan. Euren iritziz, ikasketa prozesuarekiko deskonexioa gertatu da, ikasle-irakasle harremanak hoztu egin direlako eta bereziki, ikasleen artekoak asko mugatu direlako. Bestetik, kontzentratzeko zailtasunak izan dituztela ere aipatu digute guztiek.

Sozializatzeko moduak errotik aldatu dira, eta “gertutasun falta” nabaritzen dute. Norbera eta hurbilekoak kutsatzeko beldurra dago eta horrek harremanak mugatzen ditu. “Askotan ez dakizu nola jokatu zure ingurukoekin eta oso zaila da harreman berriak sortzea”.

Gazteen “kriminalizazioaz” ere mintzatu dira solasaldian. Haien ustez lekuz kanpoko epaiak eta esajerazioak gailendu dira gizartearen. “Ez digute galdetu gure egoera eta beharren inguruan, baina etengabe epaitzen gaituzte”.

Honi guztiari lehenagotik zituzten kezkek gehitu behar zaizkio: lan mundu prekariora, independizatzeko zailtasunak, baliabide eza... Finean iluna zen etorkizuna ere ilunago bihurtu du ziurgabetasun egoera honek. Horrek larritasun sentimendua sortzen du, egoera kontrolatzeko ezintasunak estresa sortzen duelako, eta horrek, nekea.

Hein handi batean, lau gazteek kontatu digutenaren ildotik aritu zaizkigu elkarrizketatu ditugun adituak. Idoia Agirre psikiatrak Osakidetzan egiten du lan, haur eta gazteekin bereziki; Aitor Aritzeta Euskal Herriko Unibertsitateko



DANI BLANCO

Psikologia Fakultateko irakaslea da; eta Espazio Lunarra Hernanin dagoen zentro psikoterapeutikoa da, banakako eta taldeko zaintza-zerbitzuak eskaintzen dituena. Lau kidek osatzen dute proiektu hori: Maddi Gutierrez, Amanda Jimenez, Javi Olfos eta Leire Murguialdayk.

“NEKE PANDEMIKOA”

Nekea da gizartean gehien errepikatzen den ondorioetako bat, baina zer da zehazki “neke pandemikoa”? Aitor Aritzeta lanean erreta egotearen sindromearen adibidea darabil kontzeptua azaltzeko: “Lanean erreta gaudenean, desoreka gertatzen da sentitzen dugun presioaren eta daukagun indarraren artean”. Desoreka hori denbora luzez mantentzen bada, erredura sentimendua etortzen da eta hala gertatzen ari da gaur egungo egoeran: “Geroz eta energia eta baliabide gutxiago daukagu, sentitzen ari garen presio horri aurre egiteko”. Presio hori eragiten dute mugikortasuna mugatzeak; itxialdiak; gaixotzeko, lana galtzeko edo etorkizun-

narekiko beldurrak; eta egoerari aurre egiteko ezintasunak, zeintzuek energia kentzen diguten. Hala, nekatu egiten gara: “Motibazioa galtzen dugu, asaldatu egiten gara, zaurgarriago sentitu, errazago haserretu, lo egiteko arazoak ditugu... Neke pandemikoa hori da, daukagun baliabideekin estres egoerari ezin aurre egitea”.

SOZIALIZAZIOA NERABEZARO ETA GAZTAROAN: IDENTITATEAREN ERAIKUNTZA

Izaki sozialak gara, eta bereziki nerabezaro eta gaztaroan ezinbestekoa da besteekin harremantzea. Espazio Lunarreko kideek azaldu digutenez “gaztaro osoan geure burua ezagutzen goaz, gure esperientzia pertsonalen eta beste pertsona batzuek gure inguruan bizi dituzten esperientzien bidez”. Soziazio prozesu betean daude gazteak, komunitatean bizitzeko etapa bat den heinean. “Pandemiak soziazio- eta autoezagutza-kanalak mugatzen badi-tu, nola ziurta dezakegu egungo gaz-

teek –batez ere nerabeek– estrategia osasuntsuak sortuko dituztela beren emozioak eta bizitzak moldatzeko eta kudeatzeko?”.

Aitor Aritzeta hitzetan, haien identitatea eraikitzen ari dira gazteak: “Nor naiz ni?” galdetzen diote haien buruei eta horretarako ezinbestekoak dira besteak. “Egoera honetan zaila da galdera horri erantzutea, ezin dituzulako zure ideiak eta zure auto kontzeptzioa besteekin kontrastatu”. EHUko irakaslearentzat hor dago gakoa, naturalki garatu beharko litzatekeen prozesua kaltetu edo oztopatu egiten duzunean, ondorioak ditu ongizate psikologikoan. “Horregatik ikusten ari gara sintoma hauek bereziki nerabe eta gazteen artean”.

Izurriteak depresio eta antsietatea-rekin lotutako sintomez gain, bestelako ondorioak eragin dituela dio. Anorexia eta bulimia kasuek esaterako nabarmen egin dute gora, baita bideo jokoekiko zein sare sozialekiko menpekotasunak ere. “Azken hauen bitartez larritasun



DANI BLANCO

LEKUZ KANPOKO EPAIAK. Gazteak “kriminalizazioaz” mintzatu zaizkigu. Haien ustez lekuz kanpoko epaiak eta esajerazioak gailendu dira jendartean. “Ez digute galdetu gure egoera eta beharren inguruan, baina etengabe epaitzen gaituzte”.

sentimenduetatik ihes egiten saiatzen dira, baina horrek bakardade eta sufri-menduak ere ekartzen ditu”.

Argi dago gaur egungo gazteen artean sare sozialak harremantzeko modu gisa erabiltzen direla, eta lehendik zeuden espazioak mugatu direla kontuan harturik, norberaren identitatearen erakuntzarako oinarritzko espazio bihurtzen ari dira, horrek dakartzan arrisku guztiekin.

Idoia Agirre psikiatrak institutuan dauden nerabeak tratatzen ditu kontsultan. Bere ustez, ezin izan dute ohiko baliabideez baliatu beren prozesuan aurrera egiteko. “Honek, ziur, aztarna psikiko bat utziko du, ikustear baitago zer izan den gazteentzat kalera ezin ateratzea, lagunekin ez egotea...”.

IZURRITEAK BALDINTZATUTAKO IKASKETA PROZESUA

Berrogeialdia hasi zenean, eskola eta unibertsitateak egoera berrira egokitzten saiatu ziren, eta ikasleek on-line amaitu behar izan zuten ikasturtea. Irailean, ordea, protokolo eta neurri berriekin hasi ziren eta unibertsitateen kasuan ikasle askok online bidezko eskolekin jarraitu dute.

Horrek erabat aldatu du harremanak sortzeko funtseko espazioetako bat zena. Aritzetaren ustez, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuen kaltetzea nabarmena izan da. “Asko nabaritu dut

larritasun eta urduritasun horrek denborarekin ekarri duen nekea eta motibazio falta. Orain gehiago kostatzen zaie ikasketa prozesuarekin konektatzea eta motibatzea. Berezik, komunikatzeko garaian, niri pertsonalki oso zaila egin zait ikasleekin konektatzea. Gainera, azalpenen sakontasuna azalean geratu dela ikusi dut, ez genuen sakontzeko aukerarik eta solasaldi oso gutxi izan dira. Ezagutza partekatzearen prozesuan kalte handia eragin du”.

Nekea, motibazio
eta ilusio falta,
apatia edota
ziurgabetasuna
dira gazteek gehien
aipatu dituztenak

ZIURGABETASUN EGOERA

Izurritearen urtea definitzeko hitz egokienetakoa da ziurgabetasuna. Izan ere, zalantzez beteriko garaiak izaten ari dira eta honek ere eragina du osasun mentalean.

Datuen arabera, bereziki gazteek pairatu dituzte krisi ekonomikoaren ondorioak. Gazte askok lanpostua galdu dute, eta haiek dira hain justu lanpostu prekarioak dituztenak. Aritzetaren ustez kezka nagusia ziurgabetasunaren kudeaketa da, egoera horri aurre egiteko gaitasun eta baliabide falta dutelako. “Horrek zaurgarriago egiten ditu osasun mentalen aurrean”.

Espazio Lunarreko kideek argi adierazi dute: “Aspalditik dakigu enplegua eta laneko segurtasun ezak osasun mentaleko arazoan eraginen areago-tzearekin lotura duela”.

Horrez gain, Agirre familien faktore sozioekonomikoaren garrantziaz aritu da: “Familian baliabide gutxiago eta estutasun handiagoa duten nerabeek sufritu dute gehien”. Joera hori nabarmen nabaritu du bere kontsultetan.

ETA AUERRERA BEGIRATUZ GERO ZER?

“Zenbat eta denbora gehiago egon trauma egoeran, orduan eta denbora gehiago beharko da aurre egiteko. Ez da beti hala izaten, baina badago lotura”, dio Aritzetak. “Bihar pandemia desagertuko balitz, honek utziko dituen nahaste psikologikoek denbora beharko lukete gainditzeko. Izan ere, pertsonen bizi dituzten arazoak eta denbora luzean izandako zaurgarritasun egoerak ondorioak izango ditu eta



ESPASIO LUNARRA proiektuko lau kideak: Maddi Gutierrez, Amanda Jimenez, Javi Olfos eta Leire Murguialday.



IDOIA AGIRRE psikiatrak Osakidetzan egiten du lan, haur eta gazteekin. Etxeko faktore sozioekonomikoek ere eragina dutela dio.

gizarteari kostatuko zaio honi buelta ematea. Pertsona bakoitzaren izaera eta baliabideak ezberdinak dira, baina denek beharko dugu denbora horretarako”.

Espazio Lunarreko kideek ondorengo kezka plazaratu dute: “Neke emozionala eta ziurgabetasuna denboran luzatzen badira, beldur gara hori gizartean normalizatuko ote den, hau da, depresioa, antsietate orokorra, itotze-sentsazioa, zer nahi dugun pentsatzerik ez izatea eta halakoak bizitzeko modutzat hartzea”.

Agirrek, ordea, beste ikuspuntu bat gehitu dio: “Urte honetan bizitakoa esperientzia bat izan da, eta behin hori gainditzeko dugunean, balio handia izango du. Esperientzia honetatik ere ikasiko dute gazteek, eta erabilgarria izango zaie seguru”.

Haien identitatea
eraikitzen ari dira
gazteak. “Nor naiz ni?”.
Aitor Aritzetak dioenez,
“egoera honetan zaila da
galdera horri erantzutea,
ezin dituzulako zure
ideiak eta zure auto
kontzepzioa besteekin
kontrastatu”

OSASUN MENTALA ZAINTEAREN GARRANTZIA

Espazio Lunarreko kideen ustez, ez zaio behar besteko arretarik ematen buruko osasunari: “Pandemia bitartean agerian geratu da ez dagoela apenas arreta-zerbitzurik, eta zerbitzu hori borondatez eta ordainsaririk gabe eman da. Premiazkoa da osasun mentalean eta emozionalean esku hartzeko politikak ezartzea. Era berean, bizitzako esparru guztietan osasun mentalari arreta jartzeko beharraz kontzientzia handiagoa sortzea eta autokudeaketarako ezagutza sustatzea ezinbestekoak dira”.



AITOR ARITZETA EHUko Psikologia Fakultateko irakaslearen hitzetan, dauzkagun baliabideekin estres egoerari ezin aurre egitea da “neke pandemikoa”.

“Orain dela urte batzuk Europar Batzordeak txosten bat atera zuen, lan erredurak eta lan estresak urtero 6.000 milioi euroko kostua zutela esanez”, kontatu digu Aritzetak. “Osasun mentalak bizitza eta ekonomia eramaten ditu aurretik: bizitza, suizidioen moduan; eta ekonomia, estresarekin sortutako bajekin eta farmakoen kontsumoarekin, besteak beste. Osasun mentalak ere izugarritzko inpaktua dauka ekonomian”. Bere ustez, buruko osasuna zaintzeko baliabideen beharra mahai gainean jarri behar da, eta horretarako, osasun publikoan psikologo gehiago behar direla dio, besteak beste. Gogorazi du jende askok ez dituela psikologo pribatuetara joateko baliabideak: “Ezin da ulertu osasun mentala pribilegio bat bezala”.

ZER EGIN OSASUN MENTALA ZAINTEKO?

Espazio Lunarreko kideek azpimarratu dute pertsonak ez garela izaki bakartiak, elkarren mendekoak baizik. “Sistema honek, gero eta indibidualismo handiagorantz bultzatzen gaituen arren, izaki sozialak gara eta gainerako beharra dugu ikasteko eta bizitzeko. Sarritan, ezin diegu zailtasunei

aurre egin norbaitekin hitz egin gabe, entzunak izan gabe eta ulertuak sentitu gabe. Niri bakarrik gertatzen ez zaidala ikusteak berebiziko garrantzia du eta finean, zaintza mentala eta emozionala aldi berean indibidualki zein kolektiboki indartzea ezinbestekoa da”.

Haien proposamena bide horretatik doa, norberaren eta taldearen zaintzan lan egitea, pertsonak erdigunean jartzeko eta gure benetako beharrei erantzutea baitute helburu. Haien erantzutarako tresna da hori.

Aritzetak, bestalde, estresari aurre egiteko energia berreskuratu behar dugula dio, eta horretarako lau hankak aulkian eseri behar dugula. Zeintzuk dira, bada, lau hanka horiek? Lehen hirurak lirakeke elikadura osasuntsua izatea, kirola egitea (antidepressibo onenetarikoa da) eta lo errutinak zaintzea. Horien bitartez energia fisikoa berreskuratu dezakegu. Osasun mentala indartzeko ordea, laugarren hanka daukagu: harremanak zaintzea eta babestea –ahal bada fisikoki–, gehiago irakurtzea, gain informazioa ekiditea, yoga, meditazioa edo antzekoak praktikatzeko... “Lau gauza horiek zainduz osasun mentalari izugarritzko bultzada eman diezaiokugu”. ●

Mendigoixaleak: abertzale eta mendizale



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Arrate (Eibar, Gipuzkoa) 1921eko apirilaren 3a. Abertzale eta mendizale mordoa (Bizkaiko 18 talde, Gipuzkoako 10 eta Arabako bat), Kalamuan tontorra egin ondoren, Arraten bildu zen eta, hantxe sortu zen ofizialki Euzko Mendigoixale Batza. Mendeurrena aitzakia, duela aste batzuk Iñaki García Uribe euskal mendizaletasunaren iker-tzaile eta Aranzadiko kideak mendizale talde bereziaren nondik norakoak azaldu zituen Sabino Arana Fundazioak antolatutako hitzaldian.

Indar handia hartu zuen berehala EMBk. Lurralde guztietako datu zehatzik ezean, badakigu sortu eta 10 urtera, Bizkaiko Mendigoixale Batzak Betsaiden batzarra egin zuenean, 40 azpitaldek eta 1.000 bazkide baino gehiagok osatzen zutela elkartearen Bizkaiko saila. Hurrengo urtean mendigoixaleek sustatutako *Jagi-Jagi* aldizkaria sortu zen eta astero 20.000 aleko tirada banatzera iritsi ziren. Urte berean, 1932an egin zen lehen Aberri Eguna Bilbon, eta han EMBko 5.000 kide inguruk desfilatuz zuten, uniforme eta guzti.

EMB sortu eta hiru urtera, 1924ko maiatzaren sortu zen Euskal Mendizale Federazioa Elgetan. Baina EMB lehenago sortu izanak ez du esan nahi euskal mendizaletasuna mendigoixaleekin batera jaio zenik, haiek izan zirenik aitzindariak. 1877koak dira euskal mendizale talde antolatu bati buruzko lehen kronikak; Ganekogortoak esan zioten talde bizkaitar hari. Eta federazioa sortu ze-



Euzko Mendigoixale Batza Arraten sortu zen duela 100 urte.


nean, aurrez antolatuta zeuden Arabako 3 talde, Nafarroako 5, Gipuzkoako 30 eta Bizkaiko 36 bildu ziren.

Abertzale mendizaleak ere ez ziren EMB jaiotzean bat-batean sortu; 1908an badugu dagoeneko EAJk antolatutako mendizale talde batzuen berri, auzoz auzo eta baserriz baserri Sabino Aranaren doktrina zabaltzen ibiltzen zirenak.

Beraz, mendizaletasun politikoa eta kirol mendizaletasuna bateratsu ari ziren antolatzen, paraleloan, baina ez nahastuta. EMBko kideak ez ziren, teknikoki, "mendigoizaleak", ez zituzten goi mendiak jomuga eta haien jarduna metro batzuk beherago egin ohi zuten,

txangoetan ideia nazionalistak zabalduz, eskuorriak eta aldizkariak banatuz, mitinak antolatuz... Gorabehera politikoek ere eragiten zieten: EAJren barne esziesioek mendigoixaleen artean ere zatiketak ekarri zituen eta gerrak jipoi handia eman zion elkarteari, duela mende bat sortutakoa itzaltzeraino.

Sabino Aranaren biografo Ceferino Jemein *Keperin*-ek (1887-1965) Sabino bera eta haren anaia Luis jo zituen lehenengo "mendigoixaletzat", Sabino 1903an hil arren. Eta EMBko kideak bi hitzetan definitu zituen: abertzaletasunagatiko mendizaleak. Mendia ez zelako helburua, tresna politikoa baizik. ●



Brontze Aroko langileen tupperrak

Prigglitz-Gasteil (Austria) kobre meatzeetan aurkitutako janari arrastoak aztertu berri ditu Austriako Zientzia Akademiako eta Arkeologia Institutuko ikerlari talde batek, eta Brontze Aroan—meatzea duela 3.100 eta 2.900 urte artean ustiatu zuten— meatzariak lanera aurrez prestatutako janaria eramaten zutela ondorioztatu dute. Langile haien

dietaz gain (lekak, haragia, zerealak, fruta eta fruitu lehorrak), ikerketak agerian utzi du garai hartako lanbideen espezializazio prozesua. Meatzarien lana optimizatzeke, janaria beraiek prestatzeari utzi zioten eta, hala, beraien lanean espezializatu ziren. Eta beste langile batzuen espezializazioa ere, janaria prestatzen zutenena, ekarri zuen horrek. ●

Aurrezkiekin Euskal Herrian proiektu eraldatzaileak sustatzeko erreminta

ARGIA ETA OLATUKOOP ELKARLANEAN

Koop57 ez da banku bat, finantza kooperatiba bat baizik. Bere berezitasuna da finantziazten dituen proiektuak etikoak eta kooperatiboak direla eta proiektu hauetako bakoitzari mailegua eman aurretik, sakon aztertzen dela proiektu horrek sozialki egiten duen ekarpena eta bere bideragarritasun ekonomikoa. Bertako kideek azaldu dutenez, “erreminta oso indartsua da burujabetzarako. Guk erabakitzen dugu gure aurrezkiekin zer finantziaztea izango den onuragarri Euskal Herriarentzat. Interkooperazioa praktikan jartzeko modu bat da, eta proiektu kooperatiboei independentzia ematen die diru kontutan”. Zazpi urteotan, guztira 1.344.000 euro mailegatu dizkie Koop57k Euskal Herriko 36 proiekturi.

Duela 26 urte sortu zen Koop57 Katalunian, eta Euskal Herrian zazpigarren urtea du honakoa. Kooperatiba bakarra den arren, lursaila dago antolatuta eta horietariko bat osatzen du Euskal Herri osoak. Hemengo lursailean, beren aurrezkiak jartzen dituzten 179 “bazkide kolaboratzaile” daude eta finantziazioa jaso dezaketen 38 “bazkide zerbitzu”.

“BAZKIDE KOLABORATZAILE” IZAN NAHI?

Nork bere aurrezkiak Koop57n jarrita, une horretan behar ez duen diru horri erabilgarritasun handia emango dio herritarrak edo entitateak: finantziazioa behar duten Euskal Herriko proiektu kooperatiboei mailegua ematea. Edozein pertsona edo entitate izan daiteke bazkide kolaboratzaile: 300 euroko kapitala da jarri beharrekoa, eta hortik aurrera aukera dago nahi izanez gero aurrezkiak Koop57n jartzeko. “Biharko egunean aurrezkiak ateratzeko ez du inongo arazorik. Dirua ateratzen eta sartzen joan daiteke eta erabat utzi nahi badio kide izateari, kapitalean jarritako 300 euro horiek berreskuratzeko aukera dauka”. Bulego birtualaren bidez sartu edo



atera daitezke aurrezkiak eta erreminta horren bidez jarraitu ditzake norberak bere diru mugimenduk.

Bazkide kolaboratzaileak denak sei hilero buletin bat jasoko du, zein proiekturi mailegua eman zaien eta beste hainbat informazio azalduz. Urtean egiten diren bi batzarretan parte hartu ahal izango du, bertan erabakiak hartzeko: “Inplikazio maila ezberdineko bazkideak daude. Batzuek aurrezkiak jartzen dituzte eta ez dute batzarretan parte hartu nahi”. Bazkide kolaboratzaile denei zabaltzen zaie Koop57ko hiru batzordeetan parte hartzeko aukera ere: batzorde soziala, batzorde teknikoa eta zuzendaritza.

Webgunean dago bazkide kolaboratzaile egiteko aukera.

“BAZKIDE ZERBITZUAK”

Bazkide zerbitzuak, Koop57ren maileguak edo zerbitzuak erabili ditzaketen entitateak dira eta izaera juridiko jakin bat izan behar dute: kooperatiba, elkarte edo fundazioa.

Adibidez, Euskal Udalekuak egiten diren Abaigar etxeko obra finantzatu du Koop57k, Boga garagardoa, EHNE Bizkaia, Zituene pasta ekologikoak, Asaken lan bertikalak, Consonni liburu edizioak, Tapuntu kooperatiba... Baina gehiago nahi dituztela diote Koop57ko kideek: “Une honetan Euskal Herriko lursailean aurrezki gehiago daude proiektuak baino. 1.703.000 euro ditugu aurrezkitan. Eta ez da hori helbu-

rua, Koop57ren helburua proiektuak finantzatzea da”.

OINARRI SOZIAL SENDOA IZATEA, MAILEGUEN ABALIK ONENA

Koop57ko batzorde sozialak aztertzen du bazkide zerbitzu izan nahi duen entitatea bat ote datorren sozialki Koop57ren ereduarekin eta filosofiarekin. Mailegu eskaera bat datorrenean, batzorde teknikoa lanean hasten da, proiektua ekonomikoki bideragarria izan daite-

keen edo ez aztertzeko. “Proiektu bakoitza ezagutzeko ahalegina egiten da, balorazioa alde sozialetik hasten da eta ondoren aztertzen da bideragarritasuna eta noski, mailegu bat emateko, proiektu hori bideragarria izan behar da”.

Koop57ren berezitasun bat da maileguak eskatzen dituenak abal mankomunitatuak aurkeztu behar dituela, hau da, eskatu den diru kopuru hori osatu behar dutela fidantzatan proiektu horren alde dauden pertsonen eta entitateen. “Abal mankomunitatuak erakusten du sare bat badagoela mailegua eman zaion proiektu horren atzean, oinarri bat baduela”. ●



coop57.coop/eu/euskalherria

Zer egiten du: Finantza zerbitzu etiko eta solidarioak..

Partaideak: guztira 186.

179 bazkide kolaboratzaile eta 38 bazkide zerbitzu.

Egoitza: Donostian.

Harremanetarako:
euskalherria@coop57.coop

ETXeko LANDAREAK LIBURUAREN BIGARREN ARGITARALDIA

Eder ditzagun etxeak landarez

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Oraintxe da unea. Udaberria. Neguko lozorrotik bizia malkadaz esnatu ondoren, bizi-bizi dator kimu berria. Natura pixka bat irakurtzen dakienak ikusiko zituen aspaldi sanjose loreak edozein malkarretan loretan, edo, oraindik ere gehienak biluzirik zirela sahatsa adarrak berde-argiz janzten. Eta dagoeneko udaberri betean sartuta, koloreztatzen ari zaizkigu inguruak eta etxeak. Aurreko primadera balkoiko geranioetan bizitzea tokatu zitzaidan, irakurle, askoz gehiago ezin; eta aurten kanpokoaz gozatzen ari baina ere, ez diet arretarik kendu. *Etxeko landareak* Jakoba Errekondoren liburuak eman dizkit pista gehiago etxe barruko, balkoiko eta lorategiko loreez.

Ez naiz lanak gehiegi aurreratzekoa. Baina kasu honetan bizkor ibili nintzen eta udazkenean erosi nuen liburua. Izugarritzko arrakasta izan du eta di-da saldu da lehen argitaraldia: urrian kaleratu eta urtea amaitzerako bukatu zen. Bigarrena kalean da jada, momentu ezin egokiagoan, etxe barru eta atariak edertzeko gogoa pizten baitu udaberri lurrinak. Zein dira, ordea, egokiak? Landare bakoitzak du klima maite bat, baditu behar batzuk, eta trikimailu guztiak kontatzen ahalgintzen da Errekondo bere bigarren liburuan.

Etxeko landareak liburua interneten eskuratu dezakezu azoka.argia.eus webgunean, baita ARGIAren salmenta puntuetan ere. Etxe ondoko, auzoko edo herriko liburu-dendan, nekazaritza kooperatiban edo lore-dendan aurki dezakezu.

HERRIAN EKITALDIRIK ANTOLATU NAHI?

Liburuaren bigarren kolpe honetarako bazuten asmo bat: *Bizi Baratz* proiektua azokaz azoka ibili izan den



DANI BLANCO

moduan, udaberri honetarako pentsatua zuten lore-azoketan egotea, bertan kontsultategiak antolatu eta jendeak liburua eskuratzeko aukera izateaz gain, zituen zalantzak Errekondorekin argi zitzan. Pandemia egoerak ez du laguntzen eta azoka asko bertan-behera geratu dira.

Dena den, asko dira Errekondorekin loreez, fruitu arbolez, basoaz edo baratzeaz zure herrian antolatu ditzaitezun jarduerak: hitzaldia, kontsultategia, tailerra, ibilaldi gidatua... jarri gurekin harremanetan lasai eta esan ea ikasleei, irakasleei, zaleei edo adituei zuzendutako ekitaldia den antolatu nahi duzun hori eta zure neurria egokituko dugu.

Eta zure landareren bati buruzko zalantzarik baduzu, idatzi bizibaratzea@bizibaratzea.eus helbidera galdera azalduz, eta Errekondok berak erantzungo dizu.

Gozatu landareez, hitz egiezu lasai, baina entzutea ahaztu gabe. Arreta pixka bat jarrita, ikusiko duzu zein eder eta esker onekoak diren. ●

AGENDA

EZ NAIZ KOLONIALISTA, BAINA...

hitzaldia eskainiko du Axier Lopez ARGIAko kazetariak: Gure esklabista eta kolonialistez, Elkanoren mundu biraren V. mendeurrena oinarri

Apirilak 28

Iruñeko Katakarak-en, 19:00etan.

Maiatzak 7

Bermeoko Nestor Basterretxea aretoan, 18:00etan.

Olatukoop sareak, Kooperatibak Denontzat proiektuaren baitan formazio zikloa antolatu du. Izena emateko, helbide honetara idatzi behar da:

koopdenontzat@olatucoop.eus

Hiru hitzaldiak Erretereria-Oreterako

Merkatuzar-en izango dira,

10:00etatik 13:30etara:

INTERKULTURALITATE KRITIKO DEKOLONIALA

Apirilak 30.

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEA ETA KOOPERATIBISMOA

Maiatzak 14.

ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arazoi hauek eman dituzte egun hauetan Argia Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



“Informazio interesgarri eta kontrastatua ematen duela iruditzen zait”


Berako Ibai

UDABERRIAREN USAIN GOZOA ETA ARDO TXARRARENA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Udaberriak lur bustiak askatzen duen usaina duela nioen aurrekoan, eta geosminari (literalki "lur usaina") egotzi "errua". *Streptomyces* generoko bakterio batzuek sortzen dute, batez ere *Streptomyces coelicolor* espezieak. Bakterio hori ez da pello kirten hutsala: egungo medikuntzan erabiltzen diren antibiotikoen iturri nagusia da, eta horregatik bera ikertu eta ikertu ari dira. Berarekin 6.000 produktu kimiko baino gehiago ekoizten dira, besteak beste, tetraklina, eritromizina, rifanpina edo kanamicina bezalako bakterioen aurkako agente ezagunak, nistatina bezalako onddoen aurkakoak, tumoreen aurkakoak, helminto edo hesteetako zizareen aurkakoak eta baita immunosupresio agenteak ere, besteak beste. Emankortasun horrek bere genoma erabat sekuentziaztea ekarri zuen. Dituen 8.000 inguru geneetatik geosmina usaina sorrarazten duena aurkitu zuten. Geosmina, udaberriak edo noiznahiko euriak dakarren lur usaina ez da



LUR BUSTI USAINA BAKTERIO HONI ESKER DA.

garrantzitsua, ardoa edateari ematen diogun arte...

Ardogintzan botila ireki eta lur usaina hartzea da izan daitekeen akatsik okerre-netakoa. Berdin da sagarrarena, udarearena, mahatsarena edo dena delakoaren frutarena izan, ardo hori egin duen enologoaren zorigaitz daitekeen eta handiena da geosmina. Madarikatua dugu udaberriaren usaina ardoan, beste batzuk gurtuta ditugun bezalaxe, adibidez gali-

potarena, lapitzarena, arbela-rena, belar ebaki berriarena... Sudurraren kultura endurtua dugu, mugatua, bridatua. Zenbait usain on dira eta beste zenbait txar, belarrak bezala.

Gameluaren sudurrari galdetu behar. Milaka urtetako enigma izan da nola gamelu batek 80 kilometrora dagoen ura usaindu eta hara bideratu daitekeen. Agidanean, geosmina horixe da arrazoa. Bera sortzen duen bakterioak badaki gameluak eta berak bezala beste animalia batzuek (intsektu, zizare eta abar) hedatzen lagunduko diotela bera dagoen ura edaten dutenean.

Batera eta bestera zirripiztindu eta garraiatuko dutela.

Mexikoko eta Amazonasko kaktusen eta beste zenbait landareren loreetan ere topatu dute geosmina. Ura dutela adierazi eta bere polinizazioa erraztuko dutenak erakartzeko trikimailu ederra.

Guri udaberriaren usain ederra, euriaren ondoreneko lurrin gozua eta ardo txarraren arrastoak dakarzkigu geosminak. ●



943 64 17 10
www.endanea.com

Hasi lanean!

Balkoia, terraza edo lorategia kolore eta lurrin berriei betetzeko unea da. Zatoz!

Online denda ➔



EHKOLEKTIBOA

BIO-INDUSTRIATIK DESBERDINTZEKO AGROEKOLOGIA-IDENTIFIKATZAILEA SORTZEN



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Agroekologiaren aldeko EHKolektiboa duela hamar urte inguru sortu zenetik, urtero antolatutako elkarteko kide guztiak batzeko eta martxan dituzten proiektuen inguruan erabakiak hartzeko topaketak. laz konfinamenduak bete-betean harra-patu zituen eta ez zuten elkartzerik izan, baina aurtengoan lortu dute oztopoei aurre egin eta XIV. topaketak aurrera eramatea. Hori bai, aurrekoetan bezala gune bakar batean elkartu beharrean, hainbat herrialdeetako bost etxaldetan egin dituzte topaketak oraingoan: Etxanon, Azpeitian, Itsason, Oibarren eta Ezpeletan.

BERME SISTEMA PARTEHARTZAILEA

“Agroekologiari lotutako identifikatzailea lortzeko lanean buru-belarri gabil-tza aurten, eta topaketetan horri forma ematen aritu gara”, azaldu du Aintzira Oñederra EHKoko talde eragileko kideak. Berme Sistema Partehartzailea (BSP) da bio-industriatik desberdintzeko elkarrekin aukeratu duen identifikazio tresna, eta sistema hori sortzeko bidea lantzen ari dira orain. Azken batean, egungo zigilu ekologiko ofizialeetatik harago joan eta agroekologiarekin lotutako beste irizpide batzuk kontuan izanzen dituen identifikatzailea adostea da asmoa: ekoizpen ekologikoan aritzeaz aparte,



gertuko eta giza neurriko etxaldea izateari eta ekonomia sozial eta eraldatzailen parte-hartzeari ere bere garrantzia ematen diote, esaterako.

Elkarlana eta kideen parte-hartzea dira identifikatzailea sortzeko EHKolektiboren tresnak. “Kontrol eta zertifikazioen alternatiba herrikoia proposatzen dugu, elkarlanean eta parte-hartzean oinarritzen den hartu-eman sarea. Gu geu gara agroekologiaren bidean joateko irizpideak proposatzen ditugunak”, diote aurkezpen bideoan. Aurtengo topaketen helburu nagusia identifikatzailearen definizioa sakontzea izan da: “Kontzeptu abstraktua iruditzen zaigu askotan agroekologiarena; horregatik, gure baloreak eta irizpideak ongi definituz gero, desberdin-

tzeko eta gure etxaldeetan egiten duguna argi azaltzeko aukera izanen dugu”, adierazi du Oñederrak.

BASERRITARRAK ETA KONTSUMITZAILEAK ELKAR HARTUTA

Lehen sektoreko hainbat esparrutan diharduten Euskal Herri osoko nekazari eta abeltzainak biltzen dira EHKolektiboa, baina baita herritar eta kontsumitzaileak ere. “Agroekologiaren ikuspegia elikadura sistema osoan landu behar dela uste dugu, eta ahalegin berezia egiten ari gara kontsumotik ere jendea erakartzeko”, dio talde eragileko kideak. Aurtengo topaketetan ere, ekoizleek eta herritarrek hartu dute parte, eta jasotako erantzunarekin pozik agertu dira antolatzaileak.

Udazkenean emanen diote jarraipena kolektiboko kideek apirileko topaketetan jorratutako bideari, pazientziak eta pauso txiki baina seguruz egin beharreko lana dela uste baitute. “Agroekologia hiru arlotan definitzen dugu guk: etxaldeetako maneiuari, bertakotasunari eta arlo sozialari lotuta. Ez dio egoera konkretu bati egiten erreferentzia, bide bati baizik. Iritsiko gara identifikatzailea lortzera, baina bidean baditugu beste etxeko lan batzuk oraindik”, biribildu du kideak. ●



MARÍA SALGADO

KRESALA, ZALDIZKOAK ETA HIRU DIMENTSIODUN POEMAK

✂ JONE ALAITZ URIARTE 📺 MARINA PALACIOS

Uda garaiko egun bero horietako bat da, Kontxako hondartza jendez lepo dago, eta egunero bezala, aldiro, megafonia pizten da. Megafoniatik entzuten diren hasierako hiru tonuen ondoren, ohiko ahotsaren eta mezu programatuen orde, guztiz ezezaguna egiten zaigun ahots bat entzuten dugu: *Hondarra kontaezina da. Bihar-arte / Europak informatzen dizue bere zerbitzua bukatu duela. Eskerrik asko. / Agurtu dezaket? Dedikatu dezaket? Galdu naiz. Medusa batean galdu zen arraina bezala / Era ordenatuan irten zaitezte.* María Salgado poetaren boza da bozgorailuetatik entzuten dena. Donostiako hondartza mitikoenean eskuhartze-poetiko egin zuen 2016ko udan Entzumen-Behatokia proiektuaren baitan. Megafoniaren mezuen eskema sintaktikoa eta soinuduna kopiatuz, eta testuan aldaketa txikiak eginez, oso bestelakoa den mezua zabaldu zuen itsasbazterrean zeuden udatarraren harridurarako. Poesia hondartzan.

Lengoaia da María Salgado (Madril, 1984) poeta eta ikerlariaren lan esparrua. Lengoaia ikertzen du, eta lengoaiaren barrena mugitzen da, hori baita mundua ulertu eta munduan egoteko ezagutzen duen modua. Erabiltzen eta irakurtzen diren lengoaiak interesatzen zaizkio, berez inorenak ez direnak, baina, aldi berean, denok darabiltzagunak. Poesia idazten hasi zen harik eta idatzitik esatera pasa zen arte, hitza idaztetik, hitza esatera. Eta bilakaera horretan, nola ez, gorputza jartzen hasi zen, eta gorputza jartze hori botere galtze gisa sentitzen du berak, jada ez dagoelako protesirik hitzaren eta bere artean. Eta hor aritzen da eroso Salgado, hitzen formak eta konposaketak arakatzuz, iraganeko poemen egitura fonetikoak bereganatuz batzuetan, irauliz besteetan, eta lengoaiak izan ditzakeen aukera eta konbinazio infinituetan samurki galduz, berbaren joan-etorrian sentsualki irristatuz.

Salgadok bere burua *low-tech* poeta gisa definitzen du, eta egun bere lana tes-

tuek, audiotestuek eta performanceek osatzen dute. Hainbat poesia-liburu argitaratu ditu, besteak beste *Ready* (Arrebato, 2012), *Hacia un ruido. Frases para un film político* (Contrabando, 2016) edo *Salitre* (La uña rota, 2019), bere azken poema-liburua. 2012az geroztik Madril-en sortu zen Euraca Mintegiko kidea da, irakurketarako, idazketarako eta pentsamendu kolektiborako taldea. Azken urteetan, Salgadoren lanak zirkuito artistikoan isla izan du, eta bere performanceak eta irakurraldiak estatuko eta nazioarteko hainbat museo eta arte-zentrotan aurkeztu dira. Musika esparruan ere aurkeztu ditu bere sorkuntzak, *Ladyfest* festival ezaguneko hainbat edizioetan, eta 2012az geroztik, Fran MM Cabeza de Vaca konpositorearekin elkarlanean ari da. M15-aren berotasunean sortutako ilusio eta utopiak, borroka politikoak eta sozialak, sexua, desira eta gorputzen errepresioa dira, besteak beste, jorratzen dituen gaietako batzuk.

Duela gutxi, Salgado Donostiako Tab-



kaleran egon da egonaldi artistikoa egiten *Jinete Último Reino* (Azken Erreinu Zaldizkoa) izena daraman proiektuan lanean, eta tarte horretan bere irakurketez eta performanceez gozatzeko aukerak izan ditugu. Azkena, Iruñeko Punto de Vista Jaialdian egin zuen *Salitre* poema-liburuaren irakurketa-performatiboa. Alzuzako Oteiza Museoan jazo zen performancea eta Salgadok eskultorearen liburutegia aukeratu zuen horretarako. *Salitre* lagunen ametsen oroitzapenez osatutako liburu ederra da, ametsak kontatzen diren eran idatzitako poemaz osatua, ametsak kontatzerakoan nolabait existitu egiten direlako. Eta besteen ametsak irakurri ahala, norberaren ametsen arrastoak ere sumatuko ditu irakurleak.

Sainz de Oizak diseinatutako mahai beltz erraldoiaren izkina batean eserita hasi zuen irakurketa Salgadok, kanpoalde berde batera ematen zuen leihate handiaren babesean. Irudia ezin zen iradokitzaileagoa izan. Saioak aurrera egin ahala, liburutegitik mugituz zihoan, ametsak buruz irakurriz –Salgadok ez ditu poemak errezitatzen, irakurri egiten ditu, eta, batzuetan, memoriaz irakurri ere–, intonazioak eta erritmoak aldizkatuz, ia-ia repeatzen, zutik, mikroaren aurrean bakarrik, bozgorailuak noizbehinka errepikatzen zituen grabaketekin elkarriketean. Erabiltzen dituen doinu ezberdinek egitura ematen diete bertsoei, eta mantra gisa funtzionatzen dute ondoren. Liburutegian geundenok saio intimo baten lekuko pribilegiatuak izan ginen, oso gertukoa izan zen emanaldi baten entzule aktiboak. Inoiz bukatzerik nahiko ez zenukeen saio horietako bat izan zen.

Bi solairu beherago Itziar Okariz artistaren *Estatuak* erakusketa zegoen ikusgai, lotura polita sortzen zuena liburutegian gertatzen ari zenarekin; izan ere, bi emakumeek lan-ildo eta lengoaiak partekatutakoak dituzte amankomunean: performancearen bitartez, ahozko tradizioetik datorren egitekoa ahalduztzen eta gorpuzten dute, eta hitz egiten den lengoaiak izan ditzakeen konplexutasunetan edertasuna aurkitzen trebeak dira biak. Halaber, Okariz *Ametsen Egunerokoa* obran aritu da lanean luzaroan, bere ametsak grabatuz eta poesia-bisual gisa erregistratuz gero, hainbat urtetan garatzen joan den lana. Leku berean Salgadok bere gertuko ametsak gorpuztu izatearen keina proposa suertatzen zen.

Zalantza barik *Jinete Último Reino* da Salgadok egun eskuartearen duen lanik handiena. 2017az geroztik Fran MM Ca-



beza de Vacarekin elkarlanean egiten ari den lan itzela da, formatuari dagokionez, audiotestu –ez performance– gisa aurkezten dutena. Hiru zatitan konposatzen ari diren lana da, eta oraingoz hirugarren eta bigarren zatiak aurkeztu dituzte jende aurrean; *Jinete Último Reino. Frag 2* Tabakaleran ikusi ahal izan genuen pasa den urtarrilean. Lan konplexua da, zeinean keinua, grafia eta soinua bikain orkestratuta doazen, erritmo biziki markatu batean. Antzekotasunik ez duen iruditegi propioa sortzen dute, zehatza, zuzena eta sinkronizatua bezain ederra, bizkorra eta argia. Testuen irakurketaren, soinuaren eta proiektatzen diren

bideo sinkronizatuko mezu ziztatzaileen bitartez, proiektuak arauaren (obediencia, disidentzia, heziketaren faseak) eta desioaren (etengabe luzatzen den gaua, gorputzak, errepresioak) inguruan biratzen du. Hiru dimentsiotan forma hartzen duen poema-bilduma dela esan liteke, leuna bezain frenetikoa suerta litekeena. Salgadok eta Cabeza de Vacak kimika berezia sortzen dute elkarrekin daudenean, beraien arteko fusioa erabatekoa da, zabaltzen dituzten mezuak indartsuak dira eta egiten duten eszenaratzea zaindua da oso. *Jinete Último Reino. Frag 1* maiatzetik aurrera ikusteko aukera izango dugu. Mereziko du. ●



LIBURUA

Algaraka



DANI BLANCO

ALGARA MUTILATUAK

ANE LABAKA MAYOZ

SUSA (LISIPE BILDUMA), 2021

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Lisipe bildumak atera berri duen berderatzigarren liburua da Ane Labaka Mayozen *Algara mutilatuak* saiera. Oro har euskal kultura begirada feministatik ikusteko aukera eskaintzen digu bildumak eta zehazki azken zenbaki honek umoreari egiten dio errepasoa.

Aurkibidera joan naiz zuzenean eta gogotsu ekin diot irakurketari. Azkar ohartu naiz liburu motza izanagatik informazio asko jasoko nuela. Liburuak, artikuluak, autoreak eta elkarrizketak aipatzen ditu Labakak bere lana hornitu eta justifikatzeko. Bertsolariei egindako elkarrizketak ere erabili ditu ikuspegiak zabaldu eta bertsolaritzaren kasu partikularra erakusteko asmoz.

Josune Muñozek erakutsia da saierak irakurtzeko modu aproposena aurkibidean interes gehien pizten digun kapitulutik hastea dela. Nire irakasleei kasu egin ohi diet eta laugarren

kapitulura joan naiz zuzenean. Planteamendu bereziki beharrezkoa iruditu zait egiten duena, eta niri zer pentsatu gehien eman didana izan da. Umorea egiten duten emakumeen eta ikusleen arteko konplizitate beharraz idazten du Labakak. Publikoko emakumeak ikusiak izateko beraietaz umorea egin beharraz edota algara libre eta mutilatu gabe egin ahal izateri buruz ari da hemen.

Umorearen definizio eta begirada historikoarekin ematen dio hasiera liburuari. Umorea zer den, zertarako erabiltzen den eta ideia hori historikoki nola sortu den kontatzen zaigu lehenengo atalean. Modu arinean kontatua dago, ulerterraza da eta aldi berean gaiari tiraka gehiago irakurtzeko aipamen dezente iradokitzen ditu autoreak.

Bigarren eta hirugarren kapituluetan sarriago entzun ditugun eztabaidak

planteatzen dira. Umorea nork eta zein norabidetan egiten duen eta umoreak mugarik izan behar ote duen. Eztabaida entzunagoak baldin badira ere, Labakak beste sortzaileen bitartez ertzak bilatu dizkio gaiari. Ez du erantzun bat eta bakarra proposatzen eta iruditu zait hitza hartu duten sortzaile guztiek askatasuna dutela ipar. Libreago sortzea, libreago barre eginaraztea eta libreago barre egitea. Bizipen desberdinetatik abiatu badira ere feminismoak espazio komunak eta algara konpartituak eman dizkie.

Ane Labaka hainbat proiektutan ari da lanean; Txakur Gorria kolektiboko kide da, bertsolaria, hainbat ikerlan ere egin ditu eta *Erradikalak gara* eta *Erradikalak ginen* antzezlanak sortu ditu Beatriz Egizabalekin batera. Eskerrik asko barrea eragin, barrea leherrazti eta barrearri boterea emateagatik. ●



MUSIKA

Kolorea eta sentsibilitatea



BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA. MENDELSSOHN ETA POULENC-EN LANAK

ZUZENDARIA: JOHANNES DEBUS. BAKARLARIA: SOYOUNG YOON (BIOLINA).

EUSKALDUNA JAUREGIAN (BILBO), MARTXOAREN 19AN.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Bilbao Orkestra Sinfonikoak arintasuna, entretenimendua eta lan ona ekartzen jakin du Euskalduna Jauregian martxoaren 18an eta 19an egindako kontzertuetan. Baina, kontuz, arinkeria eta entretenimenduaz hitz egiten dugunean, ez dugu azalkeria esan nahi, ezta gutxiago ere.

Aitzitik, aztertuko ditugun lanei balioa eman nahi diegu. Zer lan mota dira? Bada, edertasunez eta konposizio-ezaugarri konplexuz betetako musika klasikoko lanak, eta hala ere, "kolonia freskoaren" aura dutenak, ageriko sinpletasuna dutenak. Era guztietako entzuleei gustatzen zaizkien lanak, baita musika klasikoa ulertzen ez dutela esaten dutenei ere.

Kontzertu honetan interpretatu ziren bi obrak, azaldutako bertuteez gain, berritzaile eta ausartak izan ziren bere

garaian, eta aldaketa handi samarra izan zen bakoitza bere generoan.

Ausartuko nintzateke esatera ez dagoela biolin solistarik Mendelssohnen kontzertua interpretatzen ez duenik. Biolinaren errepertorioan funtsezko lana da, oso ederra. Bestalde, erromantizismoko biolinaren lehen kontzertuetako bat da. Obra honek berrikuntzak ekarri bazituen ere eta garai hartako entzuleak harritu bazituen ere, kontzertu honen arrakasta erabatekoa izan zen estreinatu zenetik.

Bilbao Orkestra Sinfonikoak Soyoung Yoon bakarlariarekin batera eskaini ziren bertsoia perfektionista eta kolorez eta ñabarduraz betea izan zen. Nazioarteko lehiaketa garrantzitsuetan saritua izan den biolinista korear honek bere teknika aparta, eta aldi berean, biolinaren aukera tekniko-espresiboak erakus-

teko duen sentsibilitate eta erraztasun bikaina erakutsi zituen.

Bilboko Orkestrak oparitu zigan bigarren obra Francis Poulenc-en *Sinfonietta* ederra izan zen. Ez da oso lan ezaguna, baina bai zirraragarria, publikoarengana oso modu zuzenean iristen dena. *Sinfonietta* 1947an konposatu zen eta hurrengo urtean Londresen estreinatu zen Roger Desormière-ren gidaritzapean. Musika arina da, batzuetan satirikoa ere bai, eta herri birez eta dantza erritmoez beterikoa. Musika hau konpositorearen xarmaz eta asmamenaz beteta dago eta kontzertu aretoetan maizago entzutea merezi du, dudarik gabe.

Bilboko Sinfonikoak, Johannes Debussy-en gidaritzapean, interpretazio txinpartaduna eskaini zuen, ukitu naif batekin, publikoa poltsikoan sartu zuena. ●



Umetokian, berriz

 AMETS ARANGUREN

Eresilientzia, egunerokotasuna, sena, autonomia, nekea, ausardia, bereizketa, estresa, irakaspenna, indarra, gorputza, erabakiak, bizi-tza sozialaren disfuntzioa, esku zimurtuak, laztantzen duten eskuak, hezten duten eskuak, babesten duten eskuak. Minez erditu behar al gara? Bakardadea, pazientzia, abortua. Ez gara ikusezinak. Ez gara ikusezinak. Ez gara ikusezinak". Hori dena eta gehiago entzuten da Iruñeko Ziudadelako Labea erakusketa aretoko etenik gabeko audioan.

Zer da zuretzat amatasuna? Erantzunak biltzen ditu Irene Cabañas artista iruindarraren *Tribu* lanak, audioz eta idatziz. 32 eta 85 urte arteko bederatzi emakumezko amen testigantzak jaso ditu Cabañasek eta bere jardun artistikoarekin uztartuz osatu du maiatzaren 16ra bitarte ikusgai egonen den erakusketa. Bere *tribu*-an (familian) ama diren emakumezkoak dira protagonista proiektuan. Denek erantzun diote ai-

paturiko galderari eta idatzizko erantzun bakoitzaren ondoan, haien eskuak daude modu ezin errealistagoan eginiko eskulturetan.

Ziudadelako Labea erakusketa aretoa borobila da, txikia, "umetokia bezalakoa", dio Irenek. Labearenak ere badu zentzua orduan. Kronologikoki daude ordenaturik, paretetan zintzilik, bederatzi amen testigantzak; ezkerretik eskuinera zaharrenarenetik gazteenarenera. Gazteenaren testigantzatik hasi gara gu. Imajinatzen dut zeharo aldatuko dela bisita ama izanez gero, eta desberdin ulertuko direla gauza asko. Baita adinaren arabera ere.

Zenbat erantzun galdera berarentzat. Bizitzan emakume izanda bete-behar gisa bizi izan dute amatasuna batzuek, beste batzuek suertatu zaien zerbait bezala eta damutik hurbil sentitu izan dira beste zenbait. Amatasunaren idealizazioa presente xamar dugin honetan, gero eta gehiago dira espe-

TRIBU ERAKUSKETA

NOIZ: maiatzaren 16ra arte

NON: Iruñeko Ziudadelako Labean

rientziaren aurpegi latzenak erakusten dituzten amak, gero eta gehiago esaten dira orain arte esan ezin zirenak, gero eta gardenagoak dira testigantzak. Eragina du horrek guztiak ama direnengan, are gehiago, agian, ez garenongan.

Edertasunez beteriko aretoa ikusi dut nik eta jende guztiarendako ederra izanen zela pentsatu dut. Emakumezko bat sartu da orduan aretoan, haur txiki bat eskutik helduta. Emakumezkoa Mendebaldeko ezaugarri fisikoekin, haurra ekialdekoekin. Aretoa gainbegirada bota eta "uff ez, nik hau ez..." esan ondotik atera dira biak. Eta eskailera pare bat jaitsi dut nik ere idealizazioaren hodeitik. Labe denak ez dira opiletarako.

Interesgarriak izan dira testigantza denak eta aitortzekoa ausardia. Esaldi batzuk eraman ditut garunean tatuatutik, bat letra larriz: "Amatasunaz... konpentsatzen duela esaten dizute: gezurra". ●



Hitz gezidunak

KOLORE GOIBEL OROIPEN		TXIOA HALABER		FAISAIAREN FAMILIAKO HEGAZTI		BURDINOLAK INTSEKTU MOTA		NAFARROAKO MENDIA GORA JOAN		HAURRA OINETAKOAK KENDU		ZELATAN INGURAL- DEAN	
				ADIERAZPEN ALJEBRAIKO BIGAREN MUSIKA NOTA									
PERTSO- NAIAREN ABIZENA SEKRETU													
									ALFER LISTU				
PERTSO- NAIAREN IZENA	HERRI HIZKERAN, BADA ESNEA MINDU									UTIKAN! ARRATSALDE- KO OTORDUA			
			LEHORTU						ARRANTZA TRESNA IKUSTEN EZ DUENA				
BAI ZERA! ALDERDI ESKUINDA- RRA													
		URANIOA ETORRI ADITZAREN INFINITIBOA							IZAN, EDUKI EUROPAKO MONETA				
EUSKALTEGI SAREA ESTATU BATUETAKO HERRITAR				DAUKA EGIPTOKO JAINKOA		MUSIKA ESTILOA ARABIAZ IZENETAN, SEME-ALABA		ENERGIA DAUKAT (ALDERAN- TZIZ)		LEKU ATZIZKIA KROMOSO- MEN OSAGAIA			JUSTU, NEURRIZ
												500 ERROMATAR ZENBAKIZ KRIPTONA	
HAUR HIZKERAN TXAKURRA ... ATERA, BURURATU					IPURDIAN EMANDAKO KOLPE ANPEREA								
							SARI						

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

			5			6	1	
3	2		9					
		4				5		
		9	1		6			
7	4						6	8
		7		2	9			
		6				8		
				9		5	6	
	9	2		3				

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

- Ohar.
- Ekaina (Bizkaian).
- Emakumezko izena.
- Patua, halabeharra.
- Ileak (bizkaieraz).

EBAZPENAK

- ABISU
- BAGIL
- IGONE
- SINUA
- ULEAK

9	7	8	5	3	4	6	1	2
3	2	5	6	9	7	8	4	1
6	4	1	7	8	2	9	3	5
2	8	9	1	4	6	7	3	5
7	4	1	3	6	9	5	2	8
5	6	8	7	2	9	3	4	1
1	6	4	2	7	8	5	9	3
3	2	5	6	9	7	8	4	1
6	4	1	7	8	2	9	3	5

I	R	A	N	O	D	N	A	T	U	R	U	R	B
O	I	K	D	R	U	P	I	O	T	O	T	O	
D	R	A	U	A	T	U	B	A	T	V	S	T	E
N	A	N	E	R	D				K	A	E		
N	A	K	U						U		P	P	
A	U	S	T	I					X	T	A		
E	A	S							V	A	U		
T	U	T	U	T					V	B			
I	A	G	V	N	O	K	I	R	E	R	S	O	E
A	N	A	O	O	G	A	T	R	E	U	I	R	
O	I	M	O	N	I	O	P	O	I	O	R	O	
G	U	U	O						T	G			

Naiara Barrado Izagirre

ASTROEN BEHATZAILEA



JUPITERRI BEGIRA, BAINA ETXETIK

"Bihar bertan aukera egonda ere ontzi batean sartu eta Jupiterren orbitaraino joateko, ez nuke bidaia hori egingo inola. Hiruzpalau urte joateko, beste horrenbeste itzultzeko (planeten kokapen ego-kia suertatuz gero)... Ezta pentsatu ere! Baina bestalde, nik neuk esan ohi dut, hitzaldietan-eta, Marte oso gertu dagoela; gainerako guztia hain urrun dago eta... Beharbada, uste dugu planetak benetan daudena baino askoz hurbilago daudela, fikzioak eraginda edo. Batzuetan galdetu didate "zergatik ez goaz beste izar-sistema bateko planeta batera?", eta kontua da Plutonera iriste hutsa oso-oso zaila litzatekeela. Hortik harago..."

"Dirua jarritz gero hogeitaurte barru Marten egongo gara, ziur"

Alboko orrialdean EHUren Ingeniaritza Eskolako teleskopioaren ondoan ageri da Naiara Barrado (Getxo, 1981), astronomoa eta Zientzia Planetarioen Ikerkuntza Taldeko kidea. Eguneroko lanean, ordea, ordenagailuko pantailari beha egon ohi da, *Hubble* teleskopioak espaziotik bidalitako Jupiterreko datuekin lanean. Planeta kontuen dibulgazioa ere egiten du, eta Martera bidalitako *Perseveranceren* misioa izan dugu harekin hitz egiteko aitzakia.

 UNAI BREA  HODEI TORRES


Aurrez ere misio gehiago egin dira Martera gailuak bidaltzeko. Oraingo honek sona handiagoa izan du hedabideetan edo nire irudipena da?

Askotan galdetzen duzue, eta nik uste dut sentsazio hutsa dela. Momentukoak handiagoa dirudi beti. Batek baino gehiagok galdetu dit: "Zergatik da garrantzitsuagoa oraingo hau?". Eta esango nuke *Opportunity* eta *Spirit* heldu zirenean ere kristorena izan zela. Bai, oraingoak gauza berriak ditu, teknologia hobe da, orain arteko handiena, noski. Adibidez, MOXIE izeneko gailu bat darama, Marteko karbono dioxidoa oxigeno bihurtzen saiatuko dena. Funtzionatzen badu, aukera izango dugu Marten oxigenoa sortu eta hemendik eraman behar ez izateko, gizakia hara iritsiz gero.

Galdera honen erantzuna elkarriketarako gida-liburuxkan idatzita edukiko duzue honezkero: benetan merezi

du hainbesteko gastua egitea?

Niri ez zait "hainbestekoa" iruditzen. Beti esaten da "diru hori beste gauza batzuetarako erabiliko bagenu...". *Mars Express* misio osoak 200 milioi euro balio izan zuen. *Curiosity*k, oraingoaren antzeko batek, 2.000 milioi euro. Eta *Perseveranceren* misioak antzera. Misio osoa: proiektua egitea, gailuak eraikitzea, bidaltzea... Dena. ESAren aurrekontua 7.000 milioi eurokoa da urtean. Eta NASArena, are handiagoa. Baina ESA Europa osokoa da, eta Espainiako armadak, Espainiakoak besterik ez, 10.000 milioi aurrekontua du urte baterako. "Armada gu babesteko sortua da ordea", argudiatzen dute batzuek. Babestu, zeretik? Guk geuk eragindako gerretatik... Adibide gehiago: bankuak erreskatatzea 60.000 milioi kostatu zitzaigun. Eta beste neurri batean, begira diezaigun futbolari: Athleticen urtebeteko aurrekontua 120 milioiokoa da. Tira, ez da hainbeste. Baina Bartzelonarena, aurren, 1.000 milioira heldu da. Real Madri-



“Nik ere ez daukat argi zertarako joan behar dugun Martera, baina horrelakoak gara, esploratzaileak gara berez”.

dena, antzera. Bi horien urte bateko aurrekontuarekin, misio bat antola daiteke Martera gailuak bidaltzeko.

Ontzat emanda oraingo misio hauen helburuetako bat etorkizunean gu geu joateko bidea prestatzea dela, hurrengo galdera dator: zertarako demontre joan behar dugu Martera? Nik ere ez daukat argi. Baina horrelakoak gara, esploratzaileak gara berez.

Haatik, ez dirudi asmoa denik hara heldu, “zer ederra!” esan eta argazki batzuk eginda etxera itzultzea. Kolonizatu, han bizi ahal izateko baldintzak sortu... Lurra izorratuko dugula eta hemen bizitzerik egongo ez dela aurreikusita.

Bai, hori guztiz absurdua da. Ahalmena badugu hango giroa eraldatzeko, Lurrekoaren antzekoa izan dadin, zergatik ez dugu hemengoa zaintzen? Errazagoa da han oxigenoa sortzea baino. Baina egia esan, ez dut uste hori denik hara joan nahi izatearen arrazoi nagusia. Ilargira joan ginen eta ez gara itzuli, beraz...

Alderdi etikoa albo batera utzita, ez gara oso baikorrak Martera heltzeko aukeraz? Benetan joan gaitezke? Hoge urte barru, diotenez.

Hoge urteko epea ezartzea baikorregia dela uste dut, baina dirua jarrita lortuko genuke. Armstrong eta abar Ilargira joan zirenean, NASAREN aurrekontua oraingoa baino askoz handiagoa zen. AEBetako presidentek aurrekontua igotzea erabakitzen badu, hoge urte barru Marten egongo gara. Ziur.

Zer iritzi duzu Martera jendea bidaltzeko egitasmo pribatuez?

Beldurra ematen didate horrelakoek, ustiapen handiegia dakartelako: ez gara nahikoa kalte egiten ari Lurrean, eta beste bat hondatzera joan behar dugu? Batzuen buruan badago asmoa behar den teknologia garatu, Marte eta Jupiter arteko asteroideetara joan eta hango mineralak ustiatzeko (platino ugari omen dago, besteak beste). Baina norenak dira asteroideak? Gai konplexua da. Izan daitezela halako bidaiak apur bat eskusiboak, kontrolatuak eta merezi duten gauzetarako.

Baina nork erabakiko du horri buruz? Etxe Zurian dagoenak? Trump batek? Publikoa izateak ez badu gauzak ondo egi-tea bermatzen, libre uzteak are gutxiago.

Eguneroko jardunean, Marteri ez, Jupiterri begiratzen diozu zuk. Kanpoko hodeiei bakarrik.

Galdera bera berriro: zertarako?

“Zertarako aztertzen ditugu beste planeten atmosferak?” galderaren erantzun tipikoa hau da: “Gure laborategi naturalak dira”. Adibidez, Marten hondar eta hauts ekaitzak gertatzen dira. Lurrean ere bai, baina Martekoak askoz ikusgarriagoak dira, eta hangoei buruz gauzak ikasiz gero, agian, Lurrekoekin konparatuz, hemengo mekanismoak ikasiko ditugu. Artizarrean berotegi-efektu ikaragarria dago. Hemen ere badugu, txikiagoa. Hangoa aztertuz ere hemengo gauzak uler ditzakegu. Eta abar. Jupiterri dagokionez, hango ekaitz handiak behatzen ditugu. Guk egiten duguna oinarritzko zientzia da, eta horretan gabiltzan guztioi galdetzen digute “zertarako”. ●



Desokupako kideek ere ezin izan dute Jonan Fernandez bere besaulkitik bota



Desokupako lagunek prest zuten furgonetan Jonan eramateko. Alferrik.

Banatutako egurratigatik Ertzaintzari eskerrak eman eta Abadiño atzean utzita, Barazarren anabolizante txupito bana edan, legioaren kanta abestu, 100 flexio egin eta Gasteizerako bidea hartu zuten Desokupa enpresako lagunek ostegunean, misio berrirako gertu. Porrot egin dute, ordea. Mila modura saiatu arren, ezin izan dute Jonan Fernandez bere besaulkitik urrundiarazi. "Flipatzekoa zen", esan digu gimnasiokume nazional horie-

tako batek: "Aulkira itsatsirik bezala zegoen, haren gorputzeko parte bat balitz bezala. Ezin izan ditugu biak banandu, eta aulkian eserita atera dugu kalera. Baina ez dakigu nola, derrepente aulkia mugitzen hasi da eta Jaurilaritzaren egoitzara sartu da berriro, Jonan gainean zuela. Dena ikusita genuelakoan okupa zorri horiekin, baina halakorik?. Hurrena ETBtik Klaudio Landa izeneko skin bat botatzeko esan digute. Ea nola doakigun...". ●

SAREAN ARRANTZATUA

Ez dira pasako, ez!



Irudia: @metasedin

Bide guztiek komunismora daramate



Irudia: @stewartWood

Athletic-eko entrenatzailea fitxatu du Trafiko Zuzendaritzak kanpaina berrirako: "Bolantean ere, koparik ez"



"Istripuak saihesteko agian ez da pertsonarik onena, baina kopazoei uko egiten parekorik ez duenez, Marcelino Garcia fitxatu dugu", adierazi du Jaurilaritzako Trafikoko buru Jon Tubarrok. "Gidari noanean koparik ez dut hartzen nik, eta autotik at ere saiatzen naiz ingurukoek ere ohitura sano bera mantentzen", azaldu du Sevillatik bueltan Toralek. Loion lur hartu duen espedizio-kideen artean Jon Maia ere bazegoen. Athletic-eko propaganda ministroak itxa-

ropen mezua zabaldu du: "Itsasoak eta basamortuak bat egiten duten zeruan zaude, mila ilargiren eguzkipean, oh Athletic, garai lanbrotsuetan borrokan, garena izatea garaipen goren. Enbor beretik sortuko dira zuhaitz gabarra gazteak. Eup!". "Euchi!" erantzun dute ozen Portu murtziarrak, Isak suediarrek eta Januzaj bruselazak "euskal anaiekin elkartasunez", Atheltic-en bigarren porrota eurena balitz bezala sufritu duten gipuzkoar guztien izenean. ●

INPRENTA
Offset eta digitala

**DISEINU
GRAFIKOA**

DISEINU
EDITORIALA

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

*Txikitik eragiten
Komunitatea zaintzen
Bidea eraikitzen
Aurrera!*



**ALDIZKARIAK
ESKU-ORRIAK
KARTELAK
LIBURUAK
EGUTEGIAK
KATALOGOAK
AGENDAK
KOADERNOAK
KARPETAK
LOGOTIPOAK**

www.**antza**.eus

Zirkuitu Ibilbidea 2, 20160
LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus

2. argitaraldia

Bizitzaren ederra loratu dadila

Jakoba Errekondo

Loreak etxeko poza dira. Zaintzen asmatzeko beharrezkoena, lore bakoitza ezagutzea da. Liburu honek hobeto zaintzeko gakoak emango dizkigu: zein landare aukeratu txoko bakoitzerako, gaixotasunei nola aurre egin, ureztaketa, ongari naturalak nola egin eta nola birlandatu.



25€

Orri kop.: 248

BIZI BARATZEA

ARGIA

EROSTEKO: argia.eus/azoka 943 37 15 45

